




# argia

2015eko azaroaren 1a | LXXVIII. urtea | 2.481 zenbakia | 3,90 euro



## ALTERNATIBEN HERRIA BILBON KULTURA POLITIKO BERRIA ERNATU DA



**B. SARASOLA ETA A. GÜEMES**  
Zer kultura eredu behar du  
ezkerrak?

**HERIOTZA DUINA**  
Legeek sufrimendu fisikora  
murrizten dute eskubidea

**EUSKAL HERRIKO BIDEO-JOKOAK**  
Industria bihurtzea  
ez da jolasa



# ALDIZKARI ERABERRITUA

## AZAROAREN ERDITIK AURRERA

Diseinu modernoagoz  
eta komunitatearen  
babesarekin badator

### ERTZETATIK ARGIA

Susan George,  
ekintzaile altermundialista:

*“Poliki eta pazientzia  
handiarekin egoera  
makurrena ere  
irauli daiteke”*





Azaleko argazkia:  
IRANTZU PASTOR  
Azala: ANTZA  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua



## Gipuzkoako Foru Aldundia

## NON ZER

2015eko azaroaren 1a, 2.481. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**BIDEO-JOKOAK** Markak hautsi dituen merkaturan gure lekua egitea xede. JON TORNER ZABALA / 4

### PERTSONAIA

**JOSU REPARAZ LEIZA:** «EAE n izan genuen publikazioaren esperientzia eta oso mingarria izan zen». REYES ILINTXETA / 10

### GAIK

**IÑAKI OLAIZOLA:** «Heriotza duinari buruzko legeek sufrimendu handiegia pasatzea eskatzen dute sedazioa jarri aurretik». UNAI BREA / 16

### IRITZIAREN LEIHOA

**FEMINISMOA MODAN OTE?** JUNE FERNÁNDEZ / 20

**APALALDIA EDO...** MIKEL IRIZAR / 22

**ZINEMAMA** IÑAKI MENDIGUREN / 23

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 21

**TXANDAN** Izki inguruan. EDU ZELAIETA / 22

**ZIRTAK** 36 aforismo. ANGEL ERRO / 24

### ERDIKO KAIERA

**EZKERRA ETA KULTURA** Beti biharko uzten den eztabaida. KEPA MATXAIN / 26

**LITERATURA** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30

**MUSIKA** MONTSERRAT AUZMENDI / 31

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO / 32

**ZIENTZIA** JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 33

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 34

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 35

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

### TERMOMETROA

**GURE ESKU DAGO-REN GOGOETA PROZESUA** Herri galdeketak orain, Euskal Herriko Ituna ondoren.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 37

**GLOCAL ZINEMA** Islandiako eta Esloveniako zinema ezagutu nahi? MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 40

**BILBOKO ALTERNATIBEN HERRIA** Eskubideak erditzera, elkarlanean. UNAI BREA, AXIER LOPEZ / 45

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**NET HURBIL** Zergatik ez du sortu behar Hitler berri bat XXI. mendean? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50





ESPN

# Markak hautsi dituen merkatuan gure lekua egitea xede

Dozena erdi marra eta zirkuluk osatutako proiektuetatik ekoizpen izugarri ikusgarrietara. Lekutan geratu dira txanpon bidez funtzionatzen zuten arkade makinak. Kontsola sofisticatuak, 80 euroko jokoak, Internet, mugarik gabeko interakzioa, jokalarri profesionalak, babesleak, txapelketa erraldoiak... Etengabe haziz doan negozioa da bideo-jokoena. Jokoz kanpo ez geratzea, hori dute gurean hainbatek misio.

| JON TORNER ZABALA |

20.000 IKUSLE har ditzake Los Angeleseko (AEB) Staples Center pabilioiak. Lepo ageri da 2013ko argazkian (goian), *League of Legends* (LOL) bideo-jokoaren Munduko Txapelketa-partidetako batean. Edizio hartan 32 milioi lagunek jarraitu zuten lehiaketa, bertatik bertara batzuek eta Internet bidez gehienek. Ostiralean, urriak 30, jokatu da aurtengo finala Berlinen. Paris, London eta Bruselako sailkapen faseko partidek milaka

eta milaka ikusle erakarri dituzte, jende bati harrigarri gerta dakioken fenomeno gero eta globalagoa medio. Zerk eraman ditu pertsona horiek guztiak kirol estadioak betetzera? Zerk ordenagailuko pantaila aurrera? "Eta zerk eraman ditu astero-astero milaka lagun futbola ikustera? Gustuko dute", erantzun digute Urtzi Odriozola eta Xabier Calvo Game Erauntsia komunitateko kideek, euskaraz aritzen diren jokalariek osatua. Futbol



taldeak, baina, identitate-ikur dira hein batean, sentimenduek lotzen gaituzte klub batera edo bestera... saiatu gara arrazoitzen. “Euskal Herrian oraindik ez da halako mugimendurik sumatzen, baina helduko da. Baskonia Atlantis taldeak adibidez bere jarraitzaileak izango ditu”. Baskonia Atlantis? “Bai, Gasteizko saskibaloia klub ezagunak eta Atlantis eSports enpresak abiatu dute proiektua. Hamabost jokalarik profesionalen taldea eratu berri dute, kirol elektronikoaren mundu osoko txapelketetan lehiatuko dena”.

Aitzindaria da akordioa. Turkiako Besiktas eta Alemaniako Wolfsburg futbol klubaren izenak bideo-joko desafiorekin loturik izan dira lehenago ere, baina modu honetan fusionatzen diren aurrenekoak dira Baskonia eta Atlantis. Saskibaloia klubak azaldu du bere marka nazioartean sendotu eta negozio-bideak handitu nahi dituela, publizitate-aktibo berriak sortzea ahalbidetu dezakeen merkatu gero eta zabalagoan. Taldearen babesle nagusia Mars Gaming da, bideo-jokoaren erabiltzaileei zuzendutako produktuak fabrikatzen dituen enpresa.

Kirol elektronikoak edo *eSports* deitutakoak jokalarik profesionalak biltzen dituzten txapelketak dira, ez derrigor kirol baten inguruko bideo-jokoak. FIFA eta NBA 2K moduko lehiaketak egiten dira, baita LOL, Hearthstone, Dota2, CS:GO edota Call of Duty bezalakoena ere. Duela hamabost bat urte sortu ziren Asian, bereziki indartsu Hego Korean. Urtean 18.000 milioi euro mugitzen duen industria da; badira txapelketak bi milioi euroko sariak banatzen dituztenak, eta jokalarik onenek denboraldi bakoitzean 500.000 euro baino gehiago irabazten dute soldata, babesletza, *merchandising*, irudi eskubide eta gainerakoetan. Kirol elektronikoek AEBetako NBA saskibaloia ligaren audientziak gaituzten dituzte. 205 milioi lagunek ikusi edo jokatu zituzten 2014ko txapelketak. Espainiako Estatuan, hazkunde fasean den merkatuak 3,7 milioi ikusle eta 763 milioi euro mugitzen ditu gaur egun, 2013an baino %31 gehiago. Soilik kirol elektronikoak hartuko dituen 15.000 lagunentzako estadioa eraikiko dute 2017rako Txinan. 2014ko LOL jokoa finalak 45.000 lagun bildu zituen Seulgo (Hego Korea) World Cup futbol estadioan. Erotzekoak dira zifrak. Euskal Herriak ere ez dio jokatzeari muzin egin. Azaroaren 20 eta 21ean Europa mailako GameGune txapelketaren 15. edizioa egingo da Bilboko Guggenheim museoan. Euskal Encounter jaialdiaren baitan hamaika edizio antolatuta, bitan Mexikoko Aldea Digital topaketetan, eta ia ezkitaldi bereizi gisa Euskalduna Jauregian, *Hearthstone* karta-jokoa izango du aurten ardatz.



**“Euskarazko merkatua txikia da. Gainera, mugikorretarako jokoak ez dute sakontasun handirik; komandoak ingelesez ere edonork uler ditzake”**

X. Calvo eta U. Odriozola



**“Apple edota Android-en denda birtualetan joko berrienak goialdean ageri dira, baina inork ere ezagutzen ez bazaitu desagertu egingo zara”**

Julen Zaballa

### **Euskal sektoreaz hitz egitea, gehitxo?**

Bideo-joko modernoaren historia 1950eko hamarkadan hasi zen (ikusirik hurrengo orriko grafikoa). Duela gutxi, beste sektore batzuekin alderatuz gero. Hazkunde izugarri bikoitza izan du, ordea, eta zinemak eta musikak, biek batera, osatzen duten merkatua gaituzten du jada. 2011n 35.000 milioi euro inguru mugitu zituen, 2013an 65.000 milioi... eta aurreikuspenen arabera, 2016an 75.000 milioi euroko langa gaituzten du. Halaber, bideo-jokoaren erabiltzaile aktiboak 1.000 milioi inguru


## Bideo-jokoaren historia



1952

### Noughts and crosses (Alexander S. Douglas)


Askoren iritiz, lehendabiziko bideojoko modernoa. Pertsona bat eta makina aurrez aurre jarri zituen.



1958

### Tennis for Two (William Higginbotham)

Aurrenekoz joka zezaketen bi pertsonak elkarren kontra.



1962

### Spacewar! (MIT Institutua)

Bideo-jokoaren historian gehien kopiatu den ideietako bat.



1972

### Galaxy Game

Historiako lehendabiziko arkade makina. Pong (Atari) jokoaren industriaren ardatz bilakatu zen. Hari jarraitu zioten Space Invaders (1978), Pacman (1980) eta abarrek. Magnavox Odyssey (Ralph Baer) atera zen, etxerako lehendabiziko kantsola.



1976

### Death Race


Jokoaren indarkeria esplizitoak adinez txikikoengan izan zezakeen eraginak eztabaida piztu zuen. Historiako lehendabiziko joko polemikoa askorentzat.



1981

### Space Invaders

Bideo-joko baten aurreneko txapelketa egin zen AEBetan. 10.000 lagunek hartu zuten parte.



1983-1985

### 8 biteko aroa

NES eta Master System kantsolak atera ziren. Tetris garai hartakoa da.

1950

1955

1960

1965

1970

1975

1980

ru izango direla uste da. Ulertzekoa da, beraz, Baskoniak abentura honi ekitea.

Zein da, baina, bideo-jokoaren merkatuak Euskal Herrian bizi duen egoera? Zein garapen izan du, 1985ean Juan Jose Epalza bizkaitarrak eta 1987an Zeus estudio donostiarrek *Made in Euskal Herria* zigiludun lehendabiziko jokoak (*Frogger* eta *Hundra*) sortu zituztenetik?

“Ezin dezakegu industria-sektore bati buruz hitz egin, euskal enpresa gutxi baitira bideo-jokoaren negozioan murgildu direnak, eta lauzpabost langile besterik ez dituzte guztiek”, azaldu digu Julen Zaballa kazetari eta *community manager* leioarrak. *Load proiektua: Euskal bideo-jokoaren historia (1985-2009)* ikerketa-lan mardula osatzen ari da Donostiako Tabakalera zentroak bultzatuta.

Dioenez, bereizi egin behar dira entretenimendura zuzendutako ekoizpenak –erreportajeen hizpide ditugunak– eta *serious game* deitzen direnak, simulazio-joko eta gisakoak, gehiago bideraturik daudenak hezkuntzara edota formaziora. “Bigarren horiei dagokien sektore indartsu samarra dugu, hura da bideo-jokoaren munduan gehien fakturatzen duen arloa. Apustu segurua da, produktu

itxia egin eta hainbat bezerori saltzen zaio. Entrenimenduan oinarritutakoek, aldiz, zailtasun gehiagori egin behar diote aurre. Joko on bat sor dezakezu, baina jendeak erosi egin behar du eta horretarako ezinbestekoa da produktua ezagutzea; publizitate-plan sendorik ez badago... Ataka berean dira frantziar eta espainiar garatzaileak”.

Mugikorrek bide berriak zabaldu eta jokoak ikusgai bihurtzen lagundu ote duten galdetu diogu. “Enpresak konturatu dira *smartphoneak*-eta ez direla panazea”, azaldu digu: “Garai batean esaten zen edonork egin ahal izango zuela joko bat, eramangarriek ate ugari irekiko zituztela. Lehendabiziko urratsa emateko agian bai, ondoren datoz komerziak ordea, produktua saldu behar denean. Apple edota Android gailuen denda birtualetan joko berrienak zerrendaren goialdean ageri dira, baina inork ere ezagutzen ez bazaitu aplikazio itsaso erraldoi batean hondoratu eta desagertu egingo zara. Lauzpabost hilabete lanean ematea horretarako...”. Publizitatean gehiago inbertitzeak lagunduko lukeela uste du, nahiz eta kontuan izan behar den “dirutzaz” hitz egiten ari garela: “Konpainia handiek milioika euro gastatzen dute marketin kon-





1985

## Super Mario Bros

atera zuen Nintendok.



1989

## Game Boy

aurkeztu zuen Nintendok, joko eramangarrien behin betiko garapena ekarri zuena.



1992-1997

## 32 eta 64 biteko belaunaldiak


PlayStation, Nintendo 64... *Final Fantasy VII*, *Resident Evil* edota *FIFA 98* jokoak. Internetek erabiltzaile anitzeko jokoak bultzatu zituen, *Doom* (1993) iraultzailea esaterako.



1998

## 128 biteko belaunaldia

Dreamcast, PlayStation 2, Xbox, Gamecube...



2006

## Hiru mosketariak


Elhuyar Fundazioarena, hiru dimentsioko irudiak erabili zituen euskarazko lehenengoa.



2014

## Fronton

Mugikorretarako jokoak (Pulsar Concept eta Baint). Milaka lagunek deskargatu dute.



1985

## Frogger

Lehendabiziko euskal bideo-jokoa sortu zuen Juan Jose Epalza bizkaitarrak.



1988-1993

## 16 biteko belaunaldia

Mega Drive, Super Nintendo...



2000

## Estropadak

Euskarazko aurreneko jokoak, 3DNewsTV eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena.



2006

## Wii kotsola

Nintendoren makinak jokalariei eredu berria erakarri du.



2015

## Aliceren ibaiak

Kotsola baterako euskarazko aurrenekoa, Delirium Studios-ena.

1985

1990

1995

2000

2005

2010

2015

tuetan. *Candy Crush*, *Angry Birds*... Merkatu konplikatua da, horregatik azken urte eta erdian Bilboko Delirium Studios eta Relevo Videogames bezalako enpresek erabaki dute kontsoletarako joko indien alde apustu egitea.

### “Independentzia” akuilu

Kontsolen munduan ohikoa da multinazionalak bizpahiru urte ematea AAA mailako joko handi bat sortzeko, lan eskerga baitago atzean: diseinua, programazioa, musika,

argazkiak, gidoia, bikoizketa... Joko arrakatsuenek pelikula baten tamainako esfortzua –eta aurrekontua– eskatzen dute. Denbora tarte horretan merkatua dantzan mantendu ahal izateko, haien katalogoetan bestelako joko batzuk txertatzea komeni zaie, eta zirrikitu hori baliatzen dute proposamen “alternatiboek”, hutsunea bete dezaketean heinean.

Terminoak sortzen duen eztabaidetan katramilatu gabe, esan dezakegu joko *indie* edo independenteak direla garatzaile txikiek




## EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16  
San Jeronimo, 14  
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com





### Gizon (ausarten) kontua

WII MODUKO kontsolek eta mugikorrek lortu duten arren ia mundu guztia bideo-jokoetan aritzea, gizon eta emakume kopuruen artean alde handia dago oraindik, pantaila aurrean denbora asko ematen duten *hardcore* erabiltzaileen kasuan bereziki. Baskonia-Atlantis dugu adibide: hamabost jokalarik profesionalak gizonetzkoak dira. Hain justu, haien aurkezpen argazkiak bide eman digu Game Erauntsia komunitateko kideei bideo-jokoen munduari leporatzen zaion matxismoaz galdetzeko.

“Aurreiritziek eta han-hemenka irakur daitezkeen zenbait iruzkinak neskak urrundu dituzte. Jokoetako pertsonaiak ere halakoxeak dira: mutil indartsuak batetik, Tomb Raider bezalako emakume hipersexualizatuak bestetik. *Call of Duty*, *Grand Theft Auto*... Joko horiek guztiak, Play Station kontsolakoak oro har, mutilei zuzendurik daude; neskei aldiz Nintendo-renak, puzzleak-eta. Denboran irauten duen gurgil zoroa da, emakumeak bigarren planoan mantentzen dituenak. Begira *Mario*, aspaldiko joko bat aipatzearen, gizonetzkoak printzesa salbatu behar du... Eta printzesak sekulako bularraldea ez badauka, garai hartako programatzaileek hala diseinatzeko nahikoa baliabiderik ez zutelako da. Gauzak aldatzen ari dira, baina...”

egindako ezohiko produktuak, manciatzeko errazagoak, sinpleagoak nahi bada, grafikoki ez hain indartsuak baina ukitu artistiko berezia dutenak. “Haien puntu ahulak zeintzuk diren badakite eta beste esparru batzuk, sormena adibidez, indartzen saiatzen dira”, diosku Game Erauntsia komunitateko kide Xabier Calvok. *Aliceren ibaiak* dugu adibide, Delirium Studios enpresak aurkeztu berri duen abentura grafikoa, kontsola batean –Nintendoen Wii U makinan– joka daitezkeen euskarazko lehendabizikoa.

Euskarazko ekoizpenari heldu aitzin, agendarako hitzordu bat: AzPlay Nazioarteko Bideo-joko Independenteen 6. Lehiaketa,

orain arte HóPlay izena zuena, azaroaren 26tik abenduaren 1era bitartean egingo da Bilboko Azkuna Zentroan (Alondegian). Sektoreko enpresa, profesional eta zaleen elkargune izateaz gain, proiektu berriak laguntzeko plataforma ere bada; 5.000 euroko sarietako bat, esaterako, euskal bideo-joko onenari emango zaio.

### Lokalizazioak, garesti

Kontsola baterako euskarazko aurreneko bideo-jokoa 2015. urtean ateratzeko agerian uzten du hizkuntza minorizatuek merkatu lehiakor honetan kosk egiteko dituzten zailtasunak. “Nintendo eta gainerako multinazionalak euren sistemetan ez dute euskara txertaturik, ezta katalana ere, hurbileko adibide bat jartzearen”, azaldu digu Zaballak.

Calvoren hitzetan, Euskal Herriko garatzaileentzat “oso-oso zaila da” euskarazko produktuak errentagarriak izatea: “Beste hizkuntza batean sortuta ere nekez lehia gaitzke enpresa handiekin; begira Relevo, *Baboon!* jokoa ingelesez argitaratu zuen zuzenean”. Odriozolak uste du Electronic Arts (EA) eta enparauk euskarazko jokoak merkaturatzea “ezinezkoa” dela. Azaldu digu EAri eskaera luzatu zitzaioela *FIFA*ren euskarazko bertsioa ateratzeko. Multinazionalak erantzun zuen kodeak ireki eta prest legokeen edonori aukera emango ziola itzulpena bere kabuz egiteko... baldin eta jokoa 100.000 ale salduko zirela ziurtatzen bazuen. “Izugarri zaila da kopuru horretara heltzea”.

Produktuaren tripetan egin beharreko aldaketez harago, jokoa euskaratzeak esan nahi du lokalizatu egin behar dela, beste hizkuntza batean dauden esaera, hitz-joko, txiste eta gainerakoak gurera egokitu, edozein film, telesail edo libururekin egiten den moduan. Eta horrek denbora eskatzen du, lantalde bat martxan jartzea, dirua azken finean. “Itzulpenak hasiera-hasieratik hartu behar dira aintzat, jokoa amaituta dagoenean hasiz gero argitalpen data nabarmen atzera daiteke”, azaldu digu Odriozolak. “Badira jokoak ahotsak ingelesez soilik grabatu, baina azpitu-luak beste hizkuntza batzuetan ere eskaintzen dituztenak. Ez dakit horrelako zerbait egiterik izango litzatekeen. Halaber, mugikorren unibertsoan argi egitea konplikatu dela deritzote Game Erauntsiko kideek: “Gure merkaturak ikaragarri txikiagoa izateaz gain, konputan izan behar da jokoez dutela sakontasun handirik, eta komandoak ingelesez ere ia edonork uler ditzakeela”.

Entretanimendu hutsezko euskarazko lehendabiziko bideo-jokoak, PC ordenagailuetan erabiltzekoak, 2000. urtean argitaratu ziren, *Estropadak* lehenengo eta *Mendizaleak*



apur bat beranduxeago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errenteriako 3DNewsTV enpresaren eskutik. *Jai Alai Sport* modukoak etorri ziren gero, Elhuyarrek garatutako abentura grafikoak... Ez dira asko, baina badira adibideak: *Oroimenaren lapurrak*, *Hiru mosketariak*, *Kao-Sumendiko sekretua*, *Armix* sagako hiruak... Haur eta gazteei zuzendutako ekoizpenak dira oro har.

## Erakundeek bulkadari heltzea xede

Gero eta herritar gehiago aritzen da bideo-jokoetan, izan kontsola, ordenagailu edo mugikorretan. Internetek mundu osoko erabiltzaileak jarri ditu lehian, lehian dira multinazional handiak, produktu arrakastatsuen nork sortuko. Eurentzat ur handiegiak ez direla demostratzea dagokie tokian tokiko enpresa eta gainerako eragileei. Erabiltzaileak ari dira lanean, Game Erauntsia lekuko, 260 kide baino gehiago dituen bideo-jokoek euskal komunitatea, euskara ardatz, txapelketak antolatzen dituen, itzulpenak egin, tailer eta hitzaldiak eman eta, administrazioarekin harremanak sendotu eta diru-laguntzetara aurkeztea xede, elkarte izateko bidean dena. Administrazioa. Sektoreak eskaintzen duen abagunea aintzat hartuta, erakunde publikoek ahalegin handiagoa egin beharko luketela uste dute gure solaskideek, itzulpenekin lagundu edota nazioartean presentzia irabazi aldera, BasqueGame enpresa-taldeak bilatzen duen moduan. 2011n sortu zuten HóPlay jaialdiaren ingurumarian Virtualware, Gestio-net Multimedia eta Ikasplay enpresek, Tecnelia korporazioak, Ideatea eta Delirium estudioek, Digital5 aholkularitza zerbitzuak, Bigorringo musika estudioak, Vocento komunikazio taldeak eta bideo-jokoak garatzeko ikasketak eskaintzen dituen DigiPen nazioarteko institutuak, Europako campus bakarra Bilbon duenak. Gaia klusterraren parte da gaur egun BasqueGame.

Julen Zaballak, bestalde, Euskal Encoun-



Euskarazko 'Minecraft' zerbitzaria sortu du Game Erauntsia komunitateak.

ter bezalako egitasmoek duten garrantziaz hitz egin digu: “Programatzaileen harrobi oparoa izan da, elkar ezagutu eta esperientziak partekatzeko ezinbesteko topagunea. Pyro Studios enpresa espainiarrak, adibidez, han aurkitu zituen gazte talentu zenbait. *Comandos* sagako jokoen kredituei begiratuta ohartuko gara lantaldeko jende dezente euskalduna dela”.

Euskal ekoizpenek eta euskarak bidea egin dezaten eragile orok esku hartu beharko du, topiko bihurtu den leloa iduri dakigukeen arren. Jabetu behar gara bideo-jokoena ez dela lau katu xebrereren kontua, jende eta diru mordo mugitzen duela, pantailaren erdi-erdian *Game Over* mezu etsigarria agertzerik nahi ez badugu behintzat. ■

**gure artean e**

**euskaraz**

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko, Geure modura.

**BFA** Bizkaiko Foru Aldundia  
**DFB** Diputación Foral de Bizkaia

[www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)

JOSU REPARAZ LEIZA

# «EAEn izan genuen publifikazioaren esperientzia eta oso mingarria izan zen»

Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendari berria azken 16 urteotan Lizarra Ikastolako zuzendaria izan da. Ikastola horretako 700 bat ikaslek eta irakaslek, egunero klaseekin hasi aurretik, sintonia saioak egiten dituzte arnasketa kontziente ariketen bidez, lanari lasai eta gogoz ekiteko.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

**Betidanik sentitu duzu irakaskuntzaren grina barruan?**

Txiki-txikitatik ibiltzen nintzen irakasle jolasetan. Arbizuko eskolan hasi eta handik Etxarrikora joan nintzen. Gero fraideekin Arantzazun bi urte eta beste hiru Gernikan, Foruan. Horren ondotik Magisteritza ikasi nuen Iruñean eta 1986an, Lizarran lanean hastearekin batera, Euskal Filologia hasi nuen Gasteizen. Irakaskuntza beti gustatu izan zait asko. Aitak tailer bat zeukan Etxarrin. Anaiak argi zeukan mekanika gustuko zuela, eta nik aldiz, irakaskuntza. Oso gazte hasi nintzen klase partikularrak ematen. Umeekin eta gazteekin beti ibili izan naiz oso gustura.

**Zuk haurrik ez duzu?**

Ez dut tentazio hori izan orain arte bederen.

**Arbizutik Lizarrara joan zinen. Aldaketa zer moduzkoa izan zen?**

Izugarría. Tokia erabat desberdina zen eta ez nuen inor ezagutzen. Beharrik lau irakasle gazte aldi berean iritsi eta elkarrekin bizitzera joan ginen. Hiru urte eman genituen elkarrekin, bakarrik bizitzera joan nintzen arte. Nire txokoa egin dut Lizarran eta oso urte onak izan dira benetan. Berehala sentitu nintzen etxean bezala. Aukera izan nuen kultur mugimenduetan parte hartzeko, *Elgacena* aldizkari-ko erredakzio batzordean partaide izan nintzen urtetan, adibidez. Gainera artez betetako hiria da. Alde Zaharra ikusgarria, eta Lizarrak duen argia beti zoragarria iruditu zait.

**Euskal Herriko Mediterranea?**

Antzeko zerbait. Astelehenero Arbizutik Lizarrarako bidea egitean, Lizarragako tunela pasatu eta lainopetik giro eguzkitsura pasatzean beti izan dut halako poz sentsazioa.

**Eta ikastolan zer giro aurkitu zenuen?**

Gurasoen konpromisoa oso handia zen. Haurrek euskaraz ikas zezaten eta ikastolatik kanpo euskaraz hitz egin zezaten nahi zuten, testuingurua ia erabat erdalduna izan arren.

**Gurasoen jarrera aldatu da gaur egun?**

Nik uste dut baietz. Ikastola handitu da eta orain jende askok aukeratzen du ikastola ez soilik euskaragatik, baizik eta bere hezkuntza proiektuak sortzen duen interesagatik. Duela zenbait urte ez zen ohikoa ikasle bati entzutea *papá, mamá* edo *colegio*, eta orain bai.

## NORTASUN AGIRIA

**Josu Reparaz Leiza.** Arbizun sortua, 1965eko uztailaren 17an. 50 urte biribilak, Nafarroako bi ikastola beteranoenek, San Ferminek eta Paz de Zigandak, aurtan bete dituzten bertsuak. Magisteritza eta Euskal Filologian lizentziaduna. Lizarra Ikastolako irakaslea izan da 1986tik eta zuzendaria azken 16 urteotan. Udazken honetan Nafarroako Ikastolen Federazioaren zuzendaritza hartu du bere gain. 6.800 ikasle biltzen dituen hamabost ikastetxetako sarea. Artezale amorratua, talde amateurretan antzerki aktore eta zuzendaria izandakoa, eta hainbat olerki lanen egilea.





Agian kontzientzia ez da horren handia gaur egun, baina aldiz, euskaratik urrun zegoen jendea hurbildu da euskarara ikastolen proiektu pedagogikoak erakarrita. Euskara ez zaie arrotz eta eroso sentitzen dira. Beraz, ikastola normalizaziorako elementu garrantzi-

tsua izan da. Inoiz pentsa ezin zitezkeen familiak euskarara hurbiltzea oso positiboa izan da.

**Hermoso de Mendoza burtzikaria, adibidez?**

Adibidez. Edo aurreko gobernuko Kulturako zuzendari orokorraren semea. Halako familia

## JOSU REPARAZ LEIZA

ezagunak badira Lizarran eta horietako batzuk erakartzea lortu du Ikastolak.

**Lizarra Ikastolak 45 urte egin ditu, baina lehen ikastola, gerraurrean izan zen.**

1931tik 1936ra. Nafarroan garai hartan sortu ziren hiruretako bat, Iruñekoarekin eta Baztangoarekin batera. Beti egon da Lizarran euskal kulturarekiko interesa. Petra Azpirotz leizarra izan zen lehen andereñoa. Oso baliabide gutxirekin lortu zuen pedagogia aldaketa handia egitea. Lortu zuen, esate baterako, ikasleekin kalera ateratzea, kantuan aritzea... Oraindik bizirik daude han ibilitako ikasle batzuk eta hori gogoratzen dute.



**Zeintzuk izan ziren ikastolen ekarpenak?**

Ikastolak euskarazko irakaskuntzaren sortzaileak dira eta sorreratik bertatik berrikuntzak funtsezkoak izan dira. Adibidez, hasierahasieratik ikasleak ez ziren sexuaren arabera bereizten. Ikaslea jarri izan da beti hezkuntza prozesuaren erdian eta esperimendazioak garrantzi handia izan du beti.

Irakasleak ez daki dena eta ikasleek ezer ere ez. Ikasleak gauza asko dakizki eta irakaslea ikaslearen interesa areagotzeko eta asetzeko bitartekoak jartzen dituen da. Ikasten dituen gauza guztiek kanpokoarekin lotura badutela ikusaraziz lagundu egiten dio ikasleari. Oso ideia berritzaileak dira horiek. Ikastolen beste ezaugarri bat izan da gurasoak partaide aktiboak izatea. Ikasle guztiek ikusten zituzten aitzak eta amak ikastolako hormak margotzen edo patioa garbitzen, eta ondorioz ikasleek ez zuten ikastola toki arrotz edo txartzat. Familien interakzioa oso garrantzitsua da. Eta hizkuntzen irakaskuntzan ere aitzindariak izan dira ikastolak. Lizarra Ikastola Nafarroako bigarrena izan zen ingeles goiztiarra eskaintzen. Hizkuntzak ez dira borrokarako tresnak. Ikastolek hasieratik

oso garbi izan dute hemen gaudela, baina munduari irekiak. Horregatik, egun ingelesa eta frantsesa ikasten da ikastoletan, eta alemana ere gero eta gehiago, orduz kanpoko jardura gisa. Gaur egun, hizkuntzen irakaskuntzaz hitz egiterakoan batzuk bolbora asmatzen ari direla ematen du, baina hori da ikastoletan aspalditik egiten ari garena. Murgiltze eredu ere ikastolen asmakizuna izan zen. Ez zekiten horrek zer ekarriko zuen zehatz-mehatz, ez zegoelako aurreko esperientziarik, baina horren aldeko apustua egin zuten oso modu intuitiboan eta gaur egun ikusten da hori dela modurik hobereana ama hizkuntza ez den beste bat ikasteko.

**Eta gaur egun?**

Ikastolek dituzten proiektu batzuk gaur egun Europan abangoardia dira. Hezkuntzan oso ingeniariarria interesgarria sortu da azken urte hauetan: ikasleak badu aukera ikasten ari den guztia beste testuinguru batzuetan aplikatzeko. Ikasi dituen baliabideak edozein mementotan erabiltzeko prest ditu bere beharretarako. Oso kontzeptu aurrerakoa da. Hizkuntzetan, adibidez, proiektu berezi bat egin dugu hizkuntzak erabilgarri izateko.

Halako proiektu berritzaileengatik, adibidez, hautatu zuten iaz Lizarra Ikastola Nafarroako ordezkaria izateko Oviedon egin zen Estatuko eskola kontseiluen berrikuntzen inguruko bilkuran.

**Ikastetxe publikoek baino autonomia handiagoa duzue halako proiektuak aurrera eramateko?**

Guk esaten dugu eredu publiko-pribatu horretatik at gaudela, kooperatibak garelako. Euskal hezkuntzaren autoeraketarako erakundeak gara ikastolak. Autogestioak baimentzen digu askatasuna. Gu geu gara gure curriculumaren arduradun. Kanpoko gobernu batek ez digu esan behar zer egin behar dugun. Gure baliabideak, eta hitzartutako baliabide publikoak, modu eraginkorrez kudeatzeko gai garela erakutsi dugu urte hauetan, gure irizpideen eta identitatearen arabera funtzionatzeko ahalmena dugula. Autogestioa eta autoeraketa gure oinarriko kontzeptuak dira, eta zentzu horretan, publikoak baino publikoagoak gara, gurasoak direlako kooperatibistak eta zuzenean parte hartzen dutelako kudeaketan eta erabakietan. Lan-taldeak oso egonkorak dira eta horrek bide ematen du proiektu konplexuak aurrera eramateko.

Irakaskuntza publikoaren aurka ez dugu ezer, noski, baina gure autonomiak gauzak beste modu batez egiteko aukera ematen digu eta horrek hainbat sari eta aitortpen garrantzi-



tsu ekarri izan digu. Adibide moduan aipa daitezke duela urte batzuk English Speaking Union erakundeak emaniko President's Award, material didaktiko onenari, edo duela hiru urte Europako Positive schools proiektuan psikologia positiboa sustatzearen alde egiten ari garen lana. Kanpoko probetan ere oso emaitza onak lortzen dituzte beti gure ikasleek. Oso ongi prestatuak ateratzen dira. Guk ikasle autonomoak eta pentsatzen dakitenak nahi ditugu. Ikasle, irakasle eta familieren triangelua oso garrantzitsua da eta eten-gabe dago aktibatua.

**Azken asteotan behin baino gehiagotan galde-tu zaito Mendoza Hezkuntza kontseilariari ikastolak sare publikoan sartzeko aukeraz.**

Guregandik ez da atera asmo hori. EAEn izan genuen publikazioaren esperientzia eta oso mingarria suertatu zen eta oso gatazkatsua, baita familien artean ere. Hortik gauza asko ikasi dugu. Merkeago ateratzen zaie familiei sare publikoan egonda, baina kooperatibaren izaerak ematen zien autonomia guztia galduta. Badakigu Nafarroako hegoaldeko zenbait ikastola oso egoera ekonomiko larrian daudela, baina horretarako dago elkartasuna, ikastolek beti erakutsi dutena. Hori da gure sarearen beste indargune bat. Maila ekonomikoan eta besteetan ere, sare bereko kideak gara hamabost ikastolak.

**Baina D eredu publikoa zabalduko da orain Nafarroa osora. Agian ikastola batzuk ez dira beharrezkoak izanen etorkizunean.**

Nafarroan kezkarria da gertatzen ari dena. Une honetan Tuteran, Irunberrin, Vianan, Lodosan... euskararen murgiltzeko aukera bakarra ikastolek ematen dute. Nahiz eta Tuteran D eredu lerroa ireki eskola publikoan, ikasle gutxi horiek ia erabat erdalduna den ikastetxean euskararen murgiltzeko duten aukera askoz ere murriztagoa izanen da ikastolan baino. Gu erabat ados gaude lege berriarekin, eta euskaraz ikasteko emango duen aukerarekin, baina arazoa da gaur egun hainbat tokitan dauden kopuruek ez dutela bi zentro motak mantentzeko adina ematen. Nafarroako Ikastolen Elkartetik eskatu diren ikerketa soziologikoez diote, adibidez, Tuteran eta Lodosan %10 baino gehiago ez direla D eta A eredu aukeratzeko prest dauden familiak. Gure beldurretako bat D eredu publikoa irekitzen den tokietan ikastolen kontzertuak galduko ote diren da. Hori gertatzen zekotan, murgiltzea benetan kolokan jarriko litzateke, ez dakigulako etorkizunean zer gobernu izanen dugun, eta zer baldintza, zer ratio, jarriko ote dituen.

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu



## ▶ Gozatu euskaraz liburategietan!...

### • ABETXUKU

**Kantuz eta kontuz**

Antton Aranburu (ipuin kontaketa musikatua)  
Azaroak 28, 12:00; 3-6 urte

### • ALDABE

Antton Aranburu (ipuin kontaketa musikatua)  
Azaroak 7, 12:00; 3-6 urte

### • ARANA

**Ipuin lotsatiak.** Odei Agirre (ipuin kontalaria)  
Azaroak 16; 18:00; 4-7 urte

### • ARIZNABARRA

**Kantuz eta kontuz**

Antton Aranburu (ipuin kontaketa musikatua)  
Azaroak 21, 12:00; 3-6 urte

### • IBAIONDO

**Txotxongiloen itzal-antzerkia**

Zurrunka teatro (lantegia)  
Azaroak 14, 11:30 > 4-6 urte eta 18:30 > 7-8 urte

### • IPARRALDE

**Zure izena akuarela.** Zabaldu (lantegia)

Azaroak 2, 18:00; 6-10 urte  
**Bertso Culinary Center.** Bertso eskola

Azaroak 30; 19:00

**Herriko azken lamia**

Sustraibarri (ipuin kontalaria)

Azaroak 21, 11:30; 5-8 urte

**Lourdes Oñederraren unibertso literarioa**

Azaroak 18; 19:00; helduak

### • SALBURUA

**Egunik garrantzitsuena**

Bego Alabazan (ipuin kontalaria)

Azaroak 3, 18:00; 12-36 hilabete + heldu 1

**Ipuina eta heziketa emozionala**

Juan Carlos Alonso

Azaroak 12; 18:30; helduak

## ▶ Oihaneder euskararen etxea

**Ilunabarrean dantzan**

Bafolk eta euskal dantzak

Azaroak 13; 20:00-22:00

**SolasAlean**

Josebe Iturriotz. Azaroak 17; 18:30-20:30

**Hitza adina mintzo**

Nawat: Alan King. Azaroak 18; 18:00-21:00

**El tigre y el venado (dokumentala)**

Azaroak 19; 18:00-21:00

**Eskailerapeko soinuak**

Moby Dick. Azaroak 26, 19:30

## ▶ Principal antzokia

Moby Dick. Gorakada / familiarentzat

Azaroak 1; 18:00

Etxekoak. Huts teatroa. Azaroak 4; 20:30

## ▶ Azaroaren 26tik abenduaren 4ra, Euskararen Astea!

**Mariturri eta Zabalgana eskoletatik karabana**

Bastida plaza: bertsolariak, dantza-plaza

Azaroak 26, 17:00

**Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Amalur


Azaroak 29, 12:00 eta 17:30

Buesa Arena. Sarrerak salgai:

AEMAR, Aek-ko euskaltegiak eta

www.katxiporreta.eus

—Maite duzun hura, euskaraz!





Nafarroako Gobernuaren eskuzabaltasuna behar da, gutxienez egoera egonkortu arte. Kontzertua eta egun ditugun ratio malguak ezinbestekoak ditugu murgiltze eredia ziurtatzeko.

### LOMCEk zer eragin du zuengan?

LOMCEk duen arrisku handienetakoa errealidadak dira. Ikasleak DBH bukatutakoan azterketa gainditu behar du titulua eskuratzeko. Ikastetxeak harrapatzeko asmatu duen formula da, lan molde bat inposatzen digu. Gainera, ikastetxeen emaitzak publiko egiten balira, sailkapenak sortuko lirarteke eta lehia areagotu. Gu konpetitibitatearen partez kooperazioa sustatzen saiatzen gara.

### 16 urtez zuzendaria izan zara Lizarran. Proiektu askoren bultzatzaile nagusia izan zara zu?

Saiatu naiz ikastola XXI. mendean lerrokatzen. Oso helburu garrantzitsua izan da guretzat pertsona ardatz bezala eta ikaslea subjektu aktibo moduan hartzea. Horretarako aldaketa asko egin behar izan dugu. Autoezagutza, autoestima eta autoerregulazioa sustatzen, eta era berean, gatazkak modu bake-tsuan kudeatzen ikasi behar izan dugu. Ikastetxeko bizimodua erabat aldatu duten proiektuak abian jarri ditugu: sormen proiektua, ahozko adierazpidearena edo pentazitaketa, pertsonaren garapena bost eremutan bilatzen duen proiektua. Emozioei asko begiratzen diegu, eta arauak modu positiboan eman behar direla uste dugu. Ez da gauza bera esatea “jotzea debekatuta dago” edo “beharrezkoa da denok ongi moldatzea”.

Mezu baikorrek mezu negatiboek baino errazago alda dezaketela mundua ikasi dugu. Tradizionalki eskoletan oso zuhurrak izan gara zorian mezuak ematerakoan eta horiek izugarritzko indarra ematen diote pertsonari. Dinamika horretan sartzen zarenean ikasle

## OFF THE RECORD

### Ikastolan ez dagoenean

“Lizarra, Iruñea eta Arbizuren artean bizi naiz orain eta lanpostu honetan ez dago ordutegirik. Hala ere, asko gustatzen zait bakarrik egotea, mendian, paseoan, liburu batekin... eta egunero saiatzen naiz denbora pixka bat bilatzen. Bestalde, baratzean aritzea maite dut. Lurrarekiko harremana oso garrantzitsua da. Lorezaintza ere izugarri gustatzen zait. Artea nire pasioetako bat da bere adierazpide guztietan. Artistekin dudan harremana mantentzea eta elikatzea gustatzen zait, erakusketak, antzerkia, dantza... dena. Eta familia zaintza. Nire gurasoak oso pertsona adinduak dira eta haiekin partekatu behar dut ene denbora”.

guztiek nahi dute zorionduak izatea, eta ondorioz, beste giro bat sortzen da. Ongi portatzen naiz ez zigorraren beldur, baizik eta konbentziturako nagoelako jarrera on batek ondorio positiboak izanen dituela niretzat eta besteentzat.

### Eta jarraipena ematen zaio etxean?

Familiekin etengabeko harremanetan gaude. Zer ari garen lantzen esaten zaie eta haiek egiten dute etxean gertatzen diren prozesuen behaketa eta balorazioa. Etxe askotan egin dituzte arauak modu positibo horretan, pentsatuz zer behar duten guztiek ongi sentitzeke. Eskola, familia eta beste eragile batzuen inplikazioa behar da, heziketa tribuaren kontua delako.

### Finlandiatik gertuago beste eredu batzuetatik baino?

Bai, noski. Han badituzte oso programa interesgarriak eskola jazarpenari aurrea hartzeko, adibidez. Hobe da gure begirada hor barna egiten ari diren gauza positiboetan finkatzea.

### Hala ere askotan ikusten dira horren politik ez diren egoerak eta gatazka latzak etxe batzuetan.

Astakeria asko egiten dira. Nola liteke etxeko lidergoa sei urteko haur batengan uztea?

### Zergatik gertatzen da? Denbora faltagatik?

Eta denbora gutxiaren kalitate eskasagatik. Batzuetan, hurrek gurasoei enbarazu egiten dietela ematen du. Bestalde, ohikoa da guraso batzuek damu sentipen modukoa izatea, hurrei behar adina denbora ez dietelako eskaintzen. Ondorioz, elkarrekin daudenean ez dute arau eta mugarik jarri nahi. Nahi duten guztia ematen diete. Arazo asko autoritatea gaizki ezartzeagatik etortzen dira. ■



# **argia 2016**ko egutegia

*Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko*

EGURREZKO  
TAULA

50€

egutegia opari

**Historia gaiak**  
**Hitzokeiak**  
**Etixerako gomendioak**  
**Zientzia**  
**Baratzea**  
**Errezetak**  
**Efemerideak**  
**Santuak**  
**Euskal izendegia**  
**Eguzkia, ilargia eta mareak**



Eskaerak:

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) · [denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus) · ☎ 943 371 545

IÑAKI OLAIZOLA

# «Heriotza duinari buruzko legeek sufirimendu handiegia pasatzea eskatzen dute sedazioa jarri aurretik»

Donostia, 1944. Gaztetan ingeniarietza ikasi zuen. Bizitza gehiena arlo horri lotutako lanbideetan aritu ostean, erretiroa hartutakoan antropologia ikasteari ekin zion, EHU-n. Amaitutakoan, heriotza aukeratu zuen doktore-tesia egiteko gaitzat, “gutxi landu den eremua delako, eta hutsune demokratikoa dagoelako; jendeak ezin du beti nahi duen bezala hil”. Gero eta pertsona gehiago beren bizitzaren amaiera antolatzeke orduan ahaldundu egiten direla uste du Olaizolak, nolana den ere.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Dani Blanco

AZKEN URTEETAN heriotzarekin dugun harremanaz sakon ikertzen jardun du Iñaki Olaizolak. Horren fruitu dira bi liburu; azkenekoa, aurren argitaratutakoa, *Muerte, ritual funerario y luto en Euskal Herria* (Heriotza, hileta-errituala eta dolua Euskal Herrian).

**Heriotzarekikoak bizitzeko eredu bi daudela diozu, elkarri kontrajarriak: tradizionala, hein handian erlijioari lotua, eta biografikoa.**

Horiek muturrak dira, eta bien artean hamai-ka aukera dago. Bitarte horretan kokatzen da jende gehiena.

**Zeuk asmatua da “biografiko” adjektiboa?**

Uste dut baietz. Azken batean, heriotza norberaren bizitzarekin lotuta dago. Eta heriotza diodanean epe batez ari naiz, ez hiltzeko une zehatzaz. Momentu batean konturatu egiten zara bizitzaren azken etapan zaudela, eta pentsamoldeak aldatu egiten dira. Gaur egun zahararen zaharrez hiltzen gara normalean. Eta normalean, gaixotasun edo mendekotasun epe luze bat pasa ondoren. Batez beste 6-7 urte bizitzen gara mendekotasunean. Arazo sozial garrantzitsua da, erakundeek eta legeek kontuan hartu behar luketena.





Liburuan egin dituzun elkarrizketetatik ondo-rioztatzen da heriotzari berari baino aurreko prozesuari diogula beldurra.

Jende gehienak hiltzeari baino gaizki hiltzeari dio beldurra. Zein da kalitatezko heriotza? Bada, hor daude bi ereduak. Oraindik indarrean dago Elizak daukan ideia: kalitatezko heriotzak sufrimendua behar du. Erredentzioa. Nik uste dut horretan ia inork ez duela sinesten gaur egun. Pertsona askok, eta batez ere emakumeek –zaintzaile izatea zer den ondo baitakite–, ez dute men-deko izan nahi. Hortik datoz bizitzaren zentzuari buruzko hausnarketa batzuk. Bizitza guztiek dute zentzua, lehen esaten zen bezala? Bada, ez. Goraka datoreen fenomeno da: honezkero ez dago diskurtso bakarra, heriotzarekin harremana gauzatzeko aukera asko dago. Biografiak askotarikoak diren bezala, heriotzak ere bai. Sistemaren aurrean errebeldia apur bat dago hor.

**Norberaren bizitzari amaiera emateko hautua beti izaten da eztabaidagai latza...**

Orain eztabaida garrantzitsua dago heriotza duinari buruz. EAEko Legebiltzarrean horri buruzko legea ari dira prestatzen, eta Nafarroan badute dagoeneko. Baina Nafarroan egin zutena egiteko, hobe ezer ez egitea.

**“Zeinek dauka eskubidea zuk bizi nahi ez duzun bizitza biziartzeko?”**

**Zergatik?**

Sufrimendu fisikoa besterik ez duelako kontuan hartzen. Baina sufrimendu hori nola neurtzen da? Ez dituzte kontuan hartzen sufrimendu psikologikoa, barne tristura... EAEn ari dira lege proposamen bat lantzen, eta deitu egin zidaten nire iritzia emateko. Ez zait gustatzen egiten ari diren legea. Esaten dute heriotzaren kalitatea hobetu nahi dutela, baina hain baldintza gogorrak jartzen dituzte... Aipatzen dituzte hilurrenoko egoera, ezin itzulizko egoera... Hau da, luzeegi itxaron behar da sedazioa lortzeko. Berriz jarriko da modan borondatezko heriotzaz hitz egitea. Orain legeak egiten dira horri buruz, baina zeinek dauka eskubidea zuk bizi nahi ez duzun bizitza biziartzeko?

**Garbi mintzatuz, suizidioaz ari gara? Hitz gogorra da, oraindik ere.**

Hizkuntzaren erabilera makurra dago tar-tean. Eutanasia aipatzen baduzu –kontuan hartuta beti ere oso egoera txarrean zaudela, ez dela kapritxo bat–, pertsona bati hiltzen laguntzeaz ari zara. Botika batzuk eman eta hilko litzateke handik minutu batzuetara, berak aukeratutako leku goxoan, aldamenean berak nahi duen jendea duela. Aldiz, sedazioa



# Moyua

## hileta zerbitzuak

*Zure momentu zailetarako*




☎ 943 783 447 / 617 442 466

Otadui Gotzaina kalea, 27  
20560 Oñati (Gipuzkoa)

[mmoyua@telefonica.net](mailto:mmoyua@telefonica.net)

[www.tanatorio-guipuzcoa.com](http://www.tanatorio-guipuzcoa.com)



da egoera berean esatea “pertsona honi hiltzen ezin diogu lagundu baina mina kenduko diogu”, nahiz eta jakin emango zaizkion botikekin handik ordu batzuetara hilko dela. Diskurtsoa da desberdina. Sedazioa ematen duenak dio helburua mina kentzea dela, nahiz eta jakin hil egingo dela, eta eutanasia da jakinda dagoen soluzio bakarra hiltzea dela, hitza bera esatea: lagundu diezaiogun hiltzen.

## Gauza bera hitz desberdinekin, hortaz.

Bai. Baina oso garrantzitsua da diskurtsoa, haren atzean asmo bat dagoelako. Adibide bat: elkarrizketa hau amaituta hileta batera joan behar dut. Duela bi egun nire koinata hil zen. Goizeko 11:15ean jarri zioten sedazioa, ondo kostata, behar ez zen sufrimendua pasa ondoren. Eta sedazioa jarri eta gero oraindik 22 ordu iraun zuen emakumeak. 22 ordu oso egoera larrian, arnasestuka... Medikuek esaten zuten “ez, ez du minik”. Ez dago eskubiderik. Nik medikuei esaten nien: “Ezin al zaio dosi handiagoa jarri?”, “ez, hori eutanasia litzateke, guk mina kendu diogu eta nahikoa”. Diskurtsoak badu eragina, beraz. Bada-kizu hil egingo dela baina zure eginkizun bakarra mina kentzea da. Eta tartean daude hamar ordu, edo hogeit, edo bi egun... Eta gero, egia da hiltzen dena dela bere heriotzaren subjektua, baina aldamenekoak ere kontuan hartu beharko lirateke.

Erljioaren eraginaz hitz egin dugu, baina medikuntzaren paternalismoa ere salatzen duzu.

Bai, aipatu dudan EAEko lege proiektua ez zait gustatzen hiru arrazoirengatik. Bat: sufri-

mentu handiegia eskatzen da; soluzioa etorriko da, baina alferreko sufrimendu baten ondotik. Bi: erabiltzen den diskurtso faltsua; hiltzen laguntzea debekatuta dago, eta mina kentzea da egin behar dena, nahiz eta jakin horrek nora zaramatzen. Hori gezurra da, izenda ditzagun gauzak beren izenez. Eta hiru: nondik datorkie medikuei botere hori? Zergatik egon behar da haien borondatea egoera horretan dagoen pertsonaren borondatearen gainetik? Non ikasi dute horretarako? Heriotzarako eskubidea dagoen edo ez dagoen, ez da gai zientifikoa; gai horretaz hausnartu duen pertsonak gai izan behar du erabakitzeke, ez da titulazioa behar horretarako. Eta tira, hor daude psikologoak, soziologoak, apaizak –nahi duenarentzat–, edo lagunak. Zergatik erabaki behar dute medikuek, nondik datorkie ahalmen hori?

**Liburuan diozu 60ko hamarkadara arte Euskal Herrian eredu tradizionala besterik ez dela egon.**

Hala da. Orduan hasi zen beste eredu azaleratzen. Aldaketa kulturalak izan ziren, eta sozialak ere bai. Esaterako, lehen esan dugunez, orain zaharrez hiltzen garela, eta sarritan gaixotasun kroniko bat jasan ondoren. Lehen ez zegoen horrelakorik. Gaixotzen zena berehala joaten zen, gehienetan.

Horiek aldaketa sozialak. Kulturalak, berriz, bi izan dira batez ere. Bata da pertsonak hartu duen nortasuna, ahalduntzea. “Nik agintzen dut nire bizitzan”. Bestea da erlijioaren eragina ahuldu dela, harekiko harremana ez da gure lehengoek zutena bezalakoa. Erljioak bere espezialitate bihurtu du heriotza. Eta Elizak ez du bere lana ondo egiten, heriotza-errituari dagokionez.

## Zergatik diozu hori?

Oso kalitate txarreko hiletak egiten dituztelako. Tokatu ahal zaizu egun berean bi hileta egotea; eta ezertaz ezagutzen ez zaituen apai-

**TABISA**  
BIDASOAKO BEILATOKIA

IRUN  
Anaka 11  
943 61 54 57

... eta lasaitasunean  
betiko inguru goxoan

HONDARRIBIA  
San Pedro 49  
943 64 54 57



zak botatzen du mitina. Darabilten diskurtsoa ez da sinesgarria gehienentzat. Kontuan hartu beharko lukete zibila dela, edo erdiak behintzat ez direla fededun, ez hildakoa ez gertukoak, eta ekintza sozial batera joaten direla horra. Baina Elizak ez du hori lantzen. Sinestunentzat besterik ez dute hitz egiten, haragiaren berpizteaz eta abar. Bestalde, nahita ere ezingo lukete ondo egin. Ehun pertsonakoa bat hiltzen da urtero. Hernanin, demagun, urtean 200 hileta dira, eta gaur egun apaiz bakarra dago. Nola prestatu hori? Nola prestatu hildako bakoitzari egokitutako diskurtsoa?

**“Elizak bere espezialitate bihurtu du heriotza, baina oso kalitate txarreko hiletak egiten dituzte, diskurtsoa hildakoari egokitu gabe”**

itsasoa... Horregatik diot batetik katedral zibilak egin beharko lirakeela; azken agurra egiteko leku antropologikoak. Bestalde, ez dugu ahaztu behar elizak herriaren diruz erai-ki direla, eta jende askorentzat, sinestun ez izan arren, leku antropologikoak direla: azken agurra herriko elizan egutea nahi lukete. Beraz, eliza bakoitzak bi kudeatzaile izan beharko lituzke, bata erlijiosoa eta bestea zibila, bi motetako ekitaldiak egiteko. Eta eliza asko dauden auzo eta herrietan, batzuk bideratu litezke ekintza zibiletarako, eta besteak erlijiosoetarako utzi.

**Horregatik proposatzen duzu katedral zibilak eraikitzea?**

Bai. Antropologian bereizi egiten da leku eta ez-lekuen artean. Lekua, antropologian, goxotasuna, sentimendu politak, elkarrizketa erraza... sortzen diren gunea da, taldeko kide zarela berresten dizun espazioa. Eta ez-lekuen adibidetzat aireportuak aipatzen dira sarritan. Sinestun batentzat, eliza leku antropologikoa da. Baina aurkitu behar da zeintzuk diren denentzako lekuak. Batzuentzat Udaletxea izango da, beste batentzat mendia,

Heriotzarekiko eredu biografikoaren zabalkundea goraka datorren fenomeno dela diozu. Alta, hildakoak ez badu alde aurretik bere borondatea adierazi, automatikoki sartzen da sistema tradizionalaren gurgpilean.

Besteak beste, ez dugu ahaztu behar ehorzte zerbitzuen sektorea oso indartsua dela. EAEn 20.000 hileta baino gehiago egiten dira urtero. Horrek diru pilo bat mugitzen du. Eta sektore horrek gauzak egiteko modu jakin bat bultzatzen du. Beraz, goraka datorren joera hori batzuetan mugatuta dago. ■


Hileta zerbitzuak - Beilatokia

**LEA-ARTIBAI**

Artabide 24 · 48700 ONDARROA


☎ 946 166 212 / 946 830 960

659 879 268



  
**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak

  
**Harrespil**

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

  
**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)

☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)

☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak





**June Fernández**

✦  
KAZETARIA

## Feminismoa modan ote?

GARAI ARRAROA dugu hau feministontzat. Alde batetik, argi dago onarpen sozial eskasa daukagula. “Ni ez naiz ez matxista ezta feminista ere” esaera zentzugabea etengabe entzun behar dugu, baita pertsonaia ospetsuen ahotan ere. Azkena Meryl Streep izan da: pentsa, sufragistei buruzko pelikula berri baten protagonista da, baina aldizkari batean esan berri du bera ez dela feminista, humanista baizik. Emakumeen eskubide zibilak borrokatu zituzten aktibisten pelikula egin eta badirudi ezer gutxi ikasi duela. Einsteinek esan omen zuen, errazagoa dela atomo bat desegitea aurreiritzi bat baino. Gure ospea ezin da txarragoa izan: indarkeriaren kontra buru-belarri aritzen gara, baina naziekin alderatzen gaituzte. Tristeia, benetan.

*Milaka manifestazio antolatu eta Gallardonek dimititu zuenean, feminista askok esan zuen ziur asko tranpa bat zela, ezin genuela gure garaipen bezala interpretatu. Mesfidantzarako arrazoiak ditugu, bai, baina gure borrokaren fruituak antzematea hain beharrezkoa dugu martxan jarraitzeko...*

Baina, aldi berean, feminismoa modan jarri omen da. Beyoncé, Lady Gaga edo Miley Cyrus bezalako pop izarrek aldarriz feministak egiten dituzte, baita –Streep baino azkarragoak edo ausartagoak diren– hamaika aktore ospetsuk ere. Ameriketako Estatu Batuetako zineman, *Mad Max* edo *Gose Jokoak* bezalako pelikuletan protagonistak emakume indartsu eta adoretuak dira, feminitatearen estereotipoak apurtzen dituzten heroiak. Komiki esparruan ere joera hori ageri da: Thor jainko eskandinaviarra emakume birjaio dela iragarri zuten pasa den urtean.

Gure hedabideetara ere marketin morea heldu da. Ikusi al duzue Kaikuren iragarkia? Protagonistek, guztiak emakumeak, diskriminazio eta klixeen kontra aurrerapausoa emateari buruz abesten

dute. Leloa: “Arina (hau da, argala) senti zaitez”. Produktua: laktosarik gabeko jogurtak (Kaikuren arabera badirudi generoak eragiten duela intolerantzia hori). Mezu sasi-feminista erabiltzen du iragarki zeharo sexistak hedatzeko.

Feminista kritikoenek diote kapitalismoa gure aldarriak irensteko gai izan dela, feminismoaren izaera subertsiboa bertan behera uzteko. Che Guevararen irudia pop produktu bihurtzearen prozesu berbera, alegia. Argi dago Hollywood zein Kaikuren motibazioa ez dela justizia soziala, salmentak bermatzeko estrategia baizik. Baina, Disneyren printzesak hainbeste kritikatu ondoren, ez al ditugu *Brave* edo *Frozen* bezalako filmak feminismoak bultzatutako aurrerapauso bezala ikusiko?

Orain arte publizistek argudiatzen zuten estereotipo sexistak erabiltzeak emaitza onak bermatzen zituela. Ez al da albiste ona rol tradizionalak apurtzen dituzten produktuak arrakastatsu bilakatu izana? Espainiako Abortuaren legearekin akordatzen naiz: milaka manifestazio antolatu eta Gallardonek dimititu zuenean, feminista askok esan zuen ziur asko tranpa bat zela, ezin genuela gure garaipen bezala interpretatu. Mesfidantzarako arrazoiak ditugu, bai, baina gure borrokaren fruituak antzematea hain beharrezkoa dugu martxan jarraitzeko...

Tira, nik beste zerbait azpimarratu nahi dut: interesatzen zaidan feminismoa, zabaldu beharrezkoa, ez dela *Mujer Hoy* bezalako aldizkariak jorrotzen dutena, Emakumeen Mundu Martxa bezalako ekimen herrikoiei eta internazionalistak baizik. Pasa den urriaren 17an Lisboan amaitu zen Euskal Herria ere zeharkatu ondoren. *Girl power* arinaren jarrera indibidualistaren aldean, karabana feminista horrek zapalkuntza sistema anitzak salatzen ditu: hetero-patriarkatua, neoliberalismoa, arrazakeria edota kolonialismoa. Helburua: geure gorputzen eta geure lurraldeen askatasuna eta burujabetza defendatzea, eta sakoneko eraldaketa soziala gauzatzeko emakume antzozon artean haziak ereitea. Ez dut uste horrelako mezurik inoiz agertuko denik Kaikuren iragarkietan. ■



ARTAXOAKO HARRESIAZ KOROATURIKO JAKINTZAREN ERREPUBLIKA



Memoria historikorik gabeko Herria,  
informaziorik gabea, zeinak ez baititu  
bere baloreak eta identitatea  
ezagutzen, kolonizatua izateko  
prest dagoen soroa duzu

Koxemari Xemen Xuriok, duela 15 urte



DANI BLANCO

Mikel Irizar

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA BERDINTASUNEN ZUZENDARIA ♦

## Apalaldia edo...

ZORROZTASUN HANDIRIK GABE “apalaldian gaudela” esan nion kazetariei, euskararen biziberritzeaz ari ginela. Eta biharamunean Anjel Lertxundi nuen galdezka —ondo zorrotz— ea nola geunden zehatz: umil apatiko, dekadentzian ala barealdian. Egun gutxira, gai beraren bueltan Patxi Baztarrikak zioen berak “geldialdia ez” baina bai “ziurgabetasuna” ikusten zuela.

Hitzak hitz, uste zabaldua da bizi-berritze prozesuaren erritmoak ari direla apaltzen, eta orain arteko ekin-tzak errepikatze hutsarekin ez ditugula orain arteko hazkundeak errepikatuko. Alegia, berrikuntza dosi handiak beharko ditugula aurrera begira. Zertan? Hona nire lehentasunak.

IKERKETA ETA ZIENTZIA. Herritarrei galdetu egin behar zaie bere hizkuntza jokabideen zergatiaz, eta erantzunei zientzia ezberdinak aplikatu.

Ikerketa/zientzia binomioak emango digu oinarria epe luzeko estrategiak marrazteko eta horien arabera-ko plangintza zehazteko. Erakundeen ahalmenari eta gizartearen ekimenari erantsiko genieke hirugarren erpin bat, ezagutzarena, eta triangulu horretan orekatuko lirarteke indarrak, funtzioak eta osagarritasunak.

TOKIKO AKTIBAZIOA. Euskaltzaletasuna zimeldu egin da profesionaltasunak gora egin ahala. Uste dut ezinbestekoa dela berreskuratzea auzo, udal eta

eskualdeka dinamika moderno bat euskaltzaleak aktibatuko eta elkartuko dituen, bai “profesionalak” (hautetsi, teknikari edo sektorekoak) eta bereziki militanteak (euskara elkarte eta gizarte eragileetakoak).

DISKURTSOEN EGUNERAKETA. Oso garrantzitsua da nola azaltzen ditugun gauzak eta nola argudiatzen politikak. Diskurtso bakarra baino, hainbat behar ditugu; elkarren artean koherenteak, noski, baina hartzaile ezberdinei egokituak. Adibidez, udan hartu nuen zuzendaritzari izena aldatze soilak ate ugari ireki dit, espero nuenetik askoz harago.

BLINDATZE POLITIKOA. Kargu berrian egiaztatzen ari naiz une egokia dela hitzunen arteko zoru komuna definitzeko, askatasuna, berdintasuna eta justizia oinarri hartuta; eta posible dela zoru komun horren

gainean akordioen aro berri bat abiatzea, euskara biziberritze prozesua liskar politikoetatik blindatuko lukeena.

Esandako ezer ez da guztiz berria, are gutxiago nik asmatutakoa. Baina sinetsita nago berrikuntza dela, ezer baino lehen, jarrera bat. Eta ditxosozko apalaldi, geldialdi edo ziurgabetasunak horixe ekar lezakeela —hain zuzen— opari: gu denongan piztea berrikuntzarako jarrera. ■

*Oso garrantzitsua da nola azaltzen ditugun gauzak eta nola argudiatzen politikak. Diskurtso bakarra baino, hainbat behar ditugu; elkarren artean koherenteak*

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Izki inguruan

UNIDAD ALAVESA berpizteko moduko egoera ikusi dugu Izki inguruan: gaztainak batzen topatu ditugun guztiak, onddo bila zebiltzan pertsonak oro eta paretan eskalatzaren ari ziren denak *bizkaitxarrak* edo *giputxiak* ziren. Bidaideak ohartarazi didanez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, baso gehienak publikoak dira (sarean ikusi dudanez, %82 dira herri lurrak). Halaber, oihan publikoen kopurua nabarmena da Nafarroan eta Iparraldean: %50 baino gehiago eta %40 inguru, hurrenez hurren. Auzia argitzen segitu du adiskideak: Euskal Herriaren bihotza omen diren Bizkaian eta

Gipuzkoan pribatizatuak daude baso gehienak aspalditxo eta, ondorioz, erabile- ra industrialeko pinudiz josiak ageri dira maiz bertako bazterrak; horregatik aurkitu omen ditugu hainbeste bizkaitar-gipuzkoar alderdi publiko hauei *etekin partikularra* ateratzen.

Nolanahi ere, amaierarako utzi nahi izan du solaskideak kolpe ozena: “Euskal natura eta euskal kultura ez datoz bat elkarrekin”. Hori dela-eta, Euskal Herriko berezko natura ikusi edota gozatu nahi duenak hobe du *periferiara jotzea*; Izki ingurura, kasurako. ■





## Iñaki Mendiguren

◆ ITZULTZAILEA

# Zinemama

AMAMA FILMA ikusteko aukera izan dugu hil honen 16an Legazpin, Asier Altunak berak aurkeztuta: a zer oparia! Nahiz eta egia izan askok daramagula baserriar bat geure barruan, hori batzuen kasuan are egiazkoagoa da, baserrian jaio eta bizi izan ginelako, nahiz eta oso umetan bertatik ihes egingakoa naizen eta orain gure jaiotetxea –Igartubeiti, alegia– baserri museo bihurturik dagoen. A zer metafora! Beraz, interes bereziarekin joan nintzen filma ikustera, baserriaren gainbehera eta belaunaldien arteko gatazka oso hurbiletik ezaguturikoa naizelako.

*Amama* ikaragarri gustatu zitzaigun arrazoi askorengatik, eta ni neu erabat identifikatu nintzen kontaturiko istorioarekin. Batetik, baserriaren bizi-iraupena planteatzen du ogibide gisa, eta hor ez dut uste etorkizun argirik dagoenik: filmean hiru seme-

alabetako inork ez du lurrian nekatzeko asmorik; gu ere lau ginen, eta azkenean inor ez nekazari. Bestetik, oso gai unibertsala planteatzen da, belaunaldien arteko gatazka, baserri giroan ez ezik, edonon ematen dena, batez ere seme-alabak gurasoen ogibide, negozio edo enpresarekin jarraitzeko prest daudenean; baina nola egin ordezkatzeko hori? Esperientziaz dakit oso zaila dela gurasoentzat garaiz erretiratzeko eta ondo erretiratzeko asmatzea; oso gaitza gertatzen zaie ardura eta erantzukizun osoa, esku-sartzerik gabe, ondorengoen esku uztea, batez ere hauek gauzak beste era batera egin nahi dituztenean.

Eta azken arazo horren ildotik, zenbat kontu ditugun kitatu gabe gurasoekin! Eta kitatzeko bide daude: egindakoa ordainaraztea, edo ulertu eta barkatzea. Eta guri, ondorengooi, dagokigu aurrekoekin eskuzabal izatea: batetik, guk haiek baino aukera hobeak izan ditugulako bizitzan; eta bestetik, horixe delako guretzat ere osasungarriena. Gurasoen bizimodua (beraien haurtzarora, heziketa, morala, balioak eta sineskizunak...) hobeto ezagutuko bagenu, agian ez genituzke hain erraz errudun joko eta errazago ulertuko genituzke gurekin izandako jokabide osasungaitzak (esaterako, seme-alaba bakoitza jaiotzatik kolore batez markatzeko joera) edo haiek gure gainera botatuko hutsuneak, gabeziak eta ezinak... Aurrekari horiek ulertzea eta, aldi berean, aurrekoengandik jasotako gauza onak aitortzea: ba ote bide hoberik seme-alabontzat, Amaia bezalaxe, zauriak osatu eta etxera itzultzeko, nor bere bideari uko egin gabe betiere? ■

*Filmean hiru seme-alabetako inork ez du lurrian nekatzeko asmorik; gu ere lau ginen, eta azkenean inor ez nekazari. Bestetik, oso gai unibertsala planteatzen da, belaunaldien arteko gatazka, baserri giroan ez ezik, edonon ematen dena, batez ere seme-alabak gurasoen ogibide, negozio edo enpresarekin jarraitzeko prest daudenean; baina nola egin ordezkatzeko hori?*



## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

2015



www.bertsotzale.eus

ZESTOA <span style="float: right;">Urriak 31</span>	ORMAIZTEGI <span style="float: right;">Azaroak 1</span>
Pilotalekua, 17:30	Zubipe pilotalekua, 17:30
Alaita Martin Etxebeste Eneritz Artetxe Eizagirre Jokin Uranga Isuskitza Jon Maia Soria Manex Mujika Amunarriz Nahikari Gabiñondo Mendizabal	Ander Lizarraide Jimeno Arkaitz Oñartzabal Agirre Felix Zubia Olaskoaga Iñaki Apalategi Astigarraga Maider Arregi Markuleta Unai Gaztelumendi Arandia
<small>Sarrerak <a href="http://www.bertsosarrerak.eus">www.bertsosarrerak.eus</a> webgunean edo egun berean leihatlan.</small>	
<span style="border: 1px solid black; padding: 2px 10px;">Final laurdenak</span>	
Laguntzailea: 	





# GARA hitz-jokoa



## SARIAK

- Bi pertsonentzako itsasbidaia Mediterraneotik barrena
- Iphone 6S edo Galaxy S6 Edge
- Ipad Pro, Ipad Air 2 edo Ipad mini 4
- Bi pertsonentzako 2 hegaldi Europara
- Arzak enean 2 pertsonentzako bazkari edo afaria
- Mugaritzen 2 pertsonentzako bazkari edo afaria
- Kindle paperwhite eta Libbuk 2
- Bi pertsonentzako 3 asteburu nekazaletxe batean
- 30 XXL harpidetza

LORTU ZURE  
**KARTILLA**  
urriaren 25 eta azaroaren 1 ean  
GARA-REKIN

## NOLA JOKATU DEZAKEZU?

- Astelehenetik ostegunera denbora-pasa bat argitaratuko dugu GARAko azken orrialdean.  
**Egun bakoitzaren emaitza kartillan ipini,** eta kartilla osatuta duzunean kioskoan entregatu. Oso erraza da

**Astero joko bat, astero sari zoragarriak zure eskura!**

Sariak zuzen dauden kartilla guztien artean zozketatuko dira. **Zorte on!**

# Beti biharko uzten den eztabaida

Eredu berria asmatzeko trantzean da ezkerra, paradigma aldaketa betean, eredu zaharretik zer erreskatatuko, lehen egindako zein akats alboratuko. Eta, halakoetan ohi denez, zer nahi duen baino argiago ikusten du zer nahi ez duen. Antzera kulturari dagokionez ere. Zein kultur eredu aldarrikatzen du hemen ezkerrek? Zer esan nahi du kultura herritarraz eta parte-hartzaileaz ari denean? Gisako galderak ardatz hartuta hitz egin dugu Beñat Sarasola eta Ainhoa Güemesekin.

| KEPA MATXAIN |

ETA KULTURAREKIN, ZER EGIN? Horra historikoki ezkerriari buruko minak sortu dizkion galdera handia. Marxek iraultza azpiegituratik etorriko dela zioenez, eta kultura gainegituran kokatu zuenez, komunismo klasikoak bigarren mailako kontutzat jo izan du urte askoan. Gerora posmarxismotik indar eraldatzaile handia aitortu zaion arren, irudi luke ezkerreko mugimenduetan aski zokoratuta jarraitzen dutela kultur ereduari buruzko eztabaidek –baita Euskal Herrian ere–, eta, jorrazten diren apurretan, azaleko klise batzuk errepikatu eta al bait azkarren hurrengo gaira igarotzeko izan ohi dela.

Auzi horretaz eta beste hainbatez mintzatu dira Beñat Sarasola eta Ainhoa Güemes, bakoitza bere esparrutik: kultur kritikaren planotik aritu da lehena –logika propioz funtzionatu behar duen plano delako aldarrikatuz, bide batez–, nazio askapenerako mugimendutik, bigarrena. Planoak plano, eta *kultura* edota *arte* bezalako funtsezko kontzeptuak modu bere berean ulertzen ez dituztela jakinik ere, agerikoa da elkarrengandik oso urrun daudela.

## Kultura, agendatik kanpo

Kultur ereduari buruzko eztabaidak alderdi politikoen eta herri mugimenduen agendatik kanpo daude, Sarasolaren ustez. Bilduk Donostian egindakoa jarri du adibidetzat: “Lehendik zegoenari euskal kuota gehitu dio, ez besterik. Ez dute errotiko aldaketarik egin, ez dute benetan arriskatu, ez da *atez-atekorik* egon kultura”. Ez zaio iruditzen Bilduren

arazoa bakarrik denik, ordea. Gai horien inguruko “sostengu ideologiko falta” sumatzen du, oro har. Gainera, instituzioetatik egin daitekeenak baditu mugak, haren ustez, besteak beste, une honetan Euskal Herrian ez dagoelako kultur mugimendu biziberritzaileak, artista talde indartsurik. “Egiten diren gauzak ahulak eta oso mugatuak dira”.

Güemesek, berriz, uste du nazio askapenerako mugimenduak sorkuntza maila izugarria erakutsi duela. “Etengabe sortu ditugu herri bezala osatzen gaituzten elementu horiek, askatasunetik eta ausardiarekin. Jakin dugu uzartzen politikaren zurrumbiloa artearen iraunkortasunarekin. Gure arazoa ez da jende sortzailea falta zaigula, estatu mailako gerra makinaren aurka ari garela baizik”.

Ezkerrek formula jakin bat erabili ohi du kultur gaietan galdurik sentitzen denean, Sarasolaren iru-

diko: beste esparru batzuetan –politikoa, sozialean, eta abar– aurrerakoiak eta iraultzaileak diren ereduak kultura bere horretan aplikatzea. Hori eginez, ordea, eredu kontserbadore bat sortzeko arriskua dagoela uste du, “kultura eta arteak esparru autonomo bat osatzen dutelako, eta beren funtzionatzeko moduak dituztelako”. Güemesek, aldiz, artearen esparruari kulturarenari baino autonomia gehiago aitortuagatik, uste du sortzaileen jarduna kultur balioek eta egoera politikoak baldintzatzen dutela. “Pankartek gure gizartean duten garrantzia, erreferentzia mito-naturalistak, intentsitate baxuko gerra honen pisua, banderak, buruberokiak... iko-

**Ezkerreko mugimenduetan aski zokoratuta jarraitzen dute kultur ereduari buruzko eztabaidek; jorrazten den apurra ere, azaletik egiten da**





Hau ez da iraultza bat.

**Artea komunitatearen autoafirmaziorako? Artea *statu quo*aren oinarriak zalantzan jartzeko? Zertarako nahi du ezkerrek?**

nokrazia horrek guztiak sakonki eragiten digu, onerako zein txarrerako. Ez da kasualitatea ETAk armak entregatu zituenean Picasoren *Gernika* atzean edukitzea. Gure iruditeria indartsua estrategia politikoaren eta adierazpen artistikoen nahasketa da. Ez dakigu artea politikatik bereizten”.

#### Zer da “herritarra eta parte hartzailea”?

Azkenaldian kultur eredu ahotan harturik hainbestetan aipatu diren bi hitz horiek trantziak izan daitezkeela dio Sarasolak. “Kultura herritarra eta parte hartzailea izan daiteke, adibidez, publiko gehien mugitzen duen

hura, eta, aldiz, minoritarioa dena ez da herritarra eta parte hartzailea. Hori logika perbertsoa da, kulturalki erabat kontserbadorea. Eraldaketa kulturala eta artistikoa ia beti esparru minoritarioetan sortzen da”.

Masibotzat jotzen dena, ordea, ez da benetan masiboa sarri. Hainbat kultur gile batu dituen *Sortuko dira besteak* egitasmoa jarri du adibide gisa. “Kursaala euskal taldeekin bete zela eta sekulako arrakasta balitz bezala saldu zuten. Hori lortzeak meritua, izatekotan, ekoizpen aldetik izango du. Baina, artistikoki, ekimen horrek hutsaren hurrengoa balio du. Izan ere, han proposatzen dena kultura hila da.

**Ogiaren egia**  
**Ogi biologikoak**  
Harri errotan  
xehetutako  
irinarekin  
egindako  
ogiak  
**Orantza ogiak**

**Galparsoro**  
**OKINDEGIA**

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

**CAMPOS**  
ETA  
*David de Jorge*

**CAMPOS**  
*David de Jorge*

FILETES - ATÚN  
BIFES - ATÚN

Hura entzutera joan ziren zenbat lagunek sortuko du beste zerbait kultur adierazpideren batean? Inork ere ez. Kultur balioa ez da zenbakitan neurtzen, eragin esponenziala izan dezake kulturak”. Sex Pistols taldeak 1976an Manchestergo Lesser Free Trade Hallen emandako kontzertu sonatua aipatu du. Apenas izango ziren 40 lagun entzuleen artean, baina ez edozein: Morrissey, Ian Curtis, Pete Shelley... hein batean, kontzertuak eragindako lilurak bultzatu zituen gerora beren musika taldeak sortzera –The Smiths, Joy Division, The Buzzcocks–. Gau hura rockaren historiako une gogoangarrietako bat bezala igaro da liburuetara.

Güemesek azaldu du kultura parte hartzailea nola ulertzen duen: “Hitz horiekin aldarrikatzen dugu artearen onurak jende gehiagorengana irits daitezela, era horretara intelektualki berritzeko eta aldaketa prozesuei ekiteko”. Arteari balio esponenziala aitortzen dio berak ere: “Kutsatu egin behar du, aberastasun abstraktu hori zabaldu eta jendearen esku jarri. Noski, horretarako ezinbestekoa da jende bat bilaketan dabilena, barne metamorfosian engaiatua, askatasun kolektiboarekin inplikaturik, toki ederrago bat sortzeko gogoz dagoena”.

### Artea, zalantza pizgarri ala autoafirmaziorako tresna?

“Arte ona normalean esparru minoritarioetan sortzen dela aldarrikatzen duzunean, elitista izatea leporatzen dizute”, dio Sarasolak. Greil Marcus kultur kritikariak modu probokatzaillean botatuko aipu bat ekarri du hizpidera: “Artean elitismoa iraultzailea da”. Zer esan nahi zuen horrekin Marcusek? “Artista batek zalantzan jarri behar dizkizu zure ideiak, ustezko egia eta abarrak. Arteak astindu behar ditu gizartean jakintzat jotzen diren aurreiritzi guztiak. Ez zuzenki beti, modu zeharkakoan sarritan. Eta saiaketa horiek minoritarioak izaten dira, jendearentzat ez direlako erosoak. Jendeak autoafirmazioa bilatzen du, zer garen, zer izan garen jakiteak ematen dio heldulekua, eta hori lortzen du museoetan, testuliburuetan, oro har, artea ondare bihurtzen denean. Baina benetako arteak, sortzen den unean, *statu quo* pitzatzea lortu behar du”. Musikako adibideak oroitu ditu: “Ez Dok Amairu-k eta Euskal Rock Erradikalak, esaterako, gaur egun ez dute eragin iraultzailerik; guztiz kontrara, autoafirmaziorako mekanismo kulturalak dira. Jendeak historia moduan ezagutu behar dituela? Ez dut ukatzen. Baina mugimendu horietatik ez da kreatiboki ezer berririk sortuko”.

**“Gure artegintzak masa-ikuskizunaren tresnetatik urrundu behar du: forma estereotipatuei ihes egin behar diegu”**

Ainhoa Güemes

**“Arteak astindu behar ditu gizartean jakintzat jotzen diren aurreiritzi guztiak. Eta saiakera horiek minoritarioak izaten dira”**

Beñat Sarasola

*Statu quo* horrela deskribatzen du Güemesek: “Makinaria kapitalistak elikatutako errealitate bat errepikatzen digute etengabe, eta horrek ez digu uzten blokeo historiko honeetatik irteten. Kapitalismoa bere burua birsortzeko gai da, baina ez aniztasunaren eta sorkuntzaren iturri agorrezin modura, gabeziak seriean ekoizteko modu gisara baizik”. Haren ustez, Euskal Herriak asimilatuta gelditu nahi ez badu, erronka bati egin behar dio aurre: “Gure artegintzak eta kultur adierazpenek masa-ikuskizunaren tresnetatik urrundu behar dute. Kultura komertzialaren eta publizitate lengoaiaren forma estereotipatuei ihes egin behar diegu”.

Funtsean, oinarritzko desadostasun bat daukate Güemesek eta Sarasolak: arteak, ona izateko, zer lortu behar duen. Aurrenekoaren ustean, “arteafirmatiboa da bere esentzian, pertsona eta komunitate gisara autoafirmatzen gaitu, eta gure proiektuak luzaro iraun dezan lortzen du”. Bigarrenak, aldiz, uste du *statu quo* zalantzan jartzen ez duen artea –arteafirmatiboa– txarra dela, *de facto*. Ideia zehatzago azalduta: “Minoritarioa den oro ez da ona, eta masiboa den oro ez da txarra. Diodana da arte ona, deserosoa den heinean, minoritarioa izan ohi dela sortzen denean. Gerora bihurtu daiteke gauza masibo bat, baina sorreran efektu hori sortzeko gai izan behar du”. Arteafirmatiboak justu kontrakoa lortzen du, bere ustean: deserosoa egin beharrean, hartzaileari halako arindu bat sortzea.

Sarasolaren ustez, ezkerak arazo historiko bat dauka arteafirmatiboarekin, eta, orain, “elitismoaren kontu honekin”, atzera egin da berriro: “Nola aldarri oso zuzen eta argiak esaten dituzten, era horretako artistak sarritara jotzen da. Baina hori, artistikoki, oso gauza kontserbadorea da. Ideologikoki atzerakoiak diren hainbat idazle askoz iraultzaileagoak dira beren sormenean ezkerreko asko baino”. Güemesek ez du halakorik ikusten bere inguruan: “Egia da gure sorkuntza indarrak agortutxeara dirudielako maiz, batez ere mezu batzuk errepikatzearen errepikatzeaz –manifestazioetako leloak, kasurako–. Baina uste dut irudipen bat besterik ez dela. Errealitate sozio-historikoa da sorkuntzarako gaitasuna murrizten diguna”. Hala ere, onartzen du garaiotan artearen arketipoak ez direla bereziki onak politikarako, kultura jakin baten arketiporik bikainenak izanik ere. “Kaskarkeria da nagusi, baita gure alderdikoengan ere. Buruzagiak, ez beti, baina mediokreak dira sarri”. ■



# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

Literatura

*Aita gurea*  
Iñaki Irasizabal

Elkar, 2015



## Aita zeruan eta gu lurrean

IÑAKI IRASIZABALI irakurritako laugarren eleberria dut *Aita gurea*. Ezin dut esan bereziki maite dudan idazlea denik, bai aldiz entretenitzen nauela.

Irasizabalek erraz irakurtzen den idazkera sinplea baliatzen du, gehienetan, 200 orrialdera heltzen ez diren bere eleberrietan.

Kontatzen duena modu zuzen, labur eta zehatzean egiten du, apainduretan denbora galdu gabe eta pertsonaien jokabidea azpimarratuz. Hori baita hain zuzen ere Irasizabalen narratibaren ardatza. Gizartea da bere analisirako baliatzen duen elementua, eta premisa horretatik abiatuta muturreko egoera baten aurrean gizabanakoak duen portaera desberdinen aurkezpena egiten du. Horrek ematen dio, azalean narrazio sinple bat dirudienari, bizitzak berak berezkoa duen kutsu dramatikoak.

*Aita gureak* industria munduko krisi ekonomikoan kokatzen ditu pertsonaiak. Enpresa giroko kontuen artean, langileen arteko harremanak, postua galtzearen beldurrak eragiten dituen inbidiak, traizioak eta gezurrak kontatzen dira. Idazlearengan berritzaile den kontestu honetan aldiz *motif* errepikakorra dugu: famili(en) arteko drama. Nonbait irakurri nuen gizartean gertatzen den oro beti familia esparrura hedatzen dela, denok baikara nola edo hala familia-kide. Eta hori bera da, juizio moral guztien gainetik, besteeikiko enpatia eragiten duena.

*Odolaren deia* nobelan bezala, honetan ere aitaren heriotza izango da gertaeren katearen motorra. Pertsonaia bakoitza iraganeko motxila kendu nahian dabil eta bizitzan “berriz hasi” nahi du: aita galdu berri duen jonki izandako alaba, jainkoan gehiago sinisten ez duen apaiza, senarra galdu berri duen emaztea, aita kartzelan izan duen Down sindromea duen mutila, bere familia zorretan utzi zuen eta kartzelatik atera berri den Down sindromedun mutilaren aita. Eta guztien elementu kohesionatzailea izango da krisian dagoen autogintzarako piezak fabrikatzen dituen lantegia.

Denek amets berdina partekatzen badute ere, ez dute honi heltzeko jarrera berdina erakusten, eta muturreko egoeretan nahastuta aurkituko dira: lapurreta, erailketa, xantaia, droga salmenta... Zein da jokabide zuzena eta zein okerra?

Bizitza errazegia litzateke galdera moralizatzaile honen erantzunera sinplifikatzeko, izan ere, pertsonaiak beren beldur eta desioek mugiturik jotatzen dutelako beti dago gure logikari ihes egiten dion zerbait.

Helburuak bitartekoa justifikatu bai/ez auziaren aurrean jartzen du irakurlea, ez epaile baizik eta ikusle gisa. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



## Liburu azoka

**Bilbon**, urriaren 30etik azaroaren 15era Arenalean.

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*



## OLBEren denboraldi berria



Gioachino Rossiniren *Il barbiere di Siviglia* obrarekin amaituko da OLBEren denboraldia, Euskalduna Jauregian.

OPERAREN LAGUNEN BILBOKO ELKARTEAK, beti bezala, gogor egin du lan aurten ere bere denboraldi berria, 64.a, aurrera ateratzeko. Insistitu egin behar da esfortzu handia egin dutela esanez, kontuan harturik gero eta laguntza txikiagoak jasotzen ari direla, krisia dela-eta. Izan ere, ohikoak ziren zazpi tituluetatik bostera pasa dira edizio honetan (baita aurrekoan ere); hori bai, betiko maila eta kategoria artistikoa mantenduz.

Begi bistan da egitarau gustagarri eta erakargarria prestatzen saiatu direla. Monografiko italiarra izango da edizio osoa, apustu apurtzaileei tokirik egin gabe. Alde batetik, pena da ausardia pittin bat ez izatea eta publikoarengana ez gerturatzea gutxitan programatzen diren beste ikuskizun mota batzuk, baina, bestalde, ulertu egin behar momentu honetan errentagarritasunaren bila aritzea.

Urriaren 24an izango dugu lehenengo obra, Verdiren *Don Carlo*, Schilleren *Dom Karlos*, *Infant von Spanien* dramari oinarritua. Opera historiko honetan, Daniella Barcellona mezzoa izango dugu, Eboli pertsonaian. Azaroan, hain ezaguna ez den opera bat disfrutatzeke aukera izango dugu: *Roberto Devereux*, Donizettirena. Opera horrek, Tudoren garaiko Roberto Devereux Essex-ko II. kondearen bizitzan oinarrituta, oso musika landua du, eta Ingalaterrako Elizabeth I.aren analisi psikologiko interesgarria eskaintzen du.

### Operaren Lagunen Bilboko Elkarte

**Egitaraua:** *Don Carlo*. *Roberto Devereux*.

*La sonnambula*. *Manon Lescaut*. *Il barbiere di Siviglia*. *Messa da Requiem*. **Lekua:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** 2015eko urritik 2016ko maiatzera bitartean.

2016an titulu arinagoak (argumentuetan gutxienez) izango ditugu. Belliniren *La sonnambula* opera erdi-serioan Jessica Pratt soprano britainiarra izango dugu Aminaren rolean. Otsailean gure izarra den Ainhoa Artetak Pucciniren *Manon Lescaut* opera ezaguna egingo du, eta Rossinirekin amaituko da denboraldia, *Il barbiere di Siviglia* obrarekin.



Baina bost opera horiekin ez da amaitzen denboraldiak ematen duena. Verdiren *Messa da Requiem* zoragarria entzuteko parada izango dugu, Dolora Zajick mezzo amerikar handiarekin, beste bakarlari batzuekin batera.

Aurreko edizioetan bezala, OLBEk Opera Berri izeneko inizatiba mantentzen du, opera publiko berrietara hurbildu nahian, prezio merkeekin. *La Sonnambula*, urtarrilaren 30ean, eta *Il barbiere di Siviglia*, maiatzaren 15ean, prezio erdian eskainiko dira. ■

**Montserrat Auzmendi**

### Puzzlea

Kokatu pieza bakoitza dagokion tokian eta Angel Toña EAEko Enplegu sailburuak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



### Sudokuak

Erraza


8					4	
		5	1	8	2	
4	2	8	3	7	6	
2			5			
3	6	4		8	7	5
		7			1	
7	2	6	8	1	3	
5	4	1	9			
1					8	

Zaila

	3	9	6			
	6	2	1	7		5
			3	6		
9				1	6	3
4	5	1				7
	9		8			
2		3	4	6		8
			2	9		5

### 5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Gorantz zuzen.
- 2.-Ubeldura.
- 3.-Ehunak, oihalak.
- 4.-Errenkada, lerroa.
- 5.-Goratzak.

### Erronboak

Erantzunek zenbaki bakoitza inguratzen dute, gezia ateratzen den laukitik hasita eta haren noranzkoa jarraituz.



1. Garaitu.
2. Erromes.
3. Ozpinez beteta.
4. Gauza exotikoekiko zaletasun.
5. Arduratsu, kezkatu.
6. Panpox, lirain.
7. Erabat desegin, ezereztu.
8. Pozoitsuak.

### Soluzioak

Puzzlea: "Gazteek txipa aldatu behar dute. Gurasoengandik hurbil bizi behar dugula usie dugu, baina zortiontasuna leku askorain dago, ez bakarrik etxetik gertu."  
 5x5: 1. Zuhk. 2. Ubela. 3. Telak. 4. Ilara. 5. Kakak.  
 Erronboak: 1. Nagusitu. 2. Peleginu. 3. Ozpinu. 4. Exotismo. 5. Gintarsu. 6. Pimpitu. 7. Sunstiu. 8. Toxikoak.

8	5	9	2	7	6	1	3	4
6	7	3	7	9	6	8	2	4
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7	6	2	5	8	4	3	1	2
4	2	1	7	3	8	5	6	7
3	5	4	1	2	8	7	5	6
2	1	7	3	8	5	6	7	4
1	3	4	2	7	9	6	8	5
5	6	4	2	1	7	9	3	8
7	3	5	4	1	9	8	2	6
9	2	1	7	3	8	5	6	4
6	8	5	7	6	4	3	2	1
7								





## Adiorik ez

2003AN ABIATUTAKO zientziari buruzko sail honenak egin du. ARGIAri eta orrialdeak izan duen irakurle orori eskerrak ematea baino ez zait geratzen. Eguneroko zientziari errepassoa ematen saiatu naiz, eta gaiak aukeratzeko askatasuna izan dudanez, ezin uka desorekak izan direla hautatutako gaiak dagokienez.

Garrantzia, jakin-mina, eduki bereziak, harritu nahia eta ulergarritasuna lehenetsi ditut, eta gertatutakoa azaltzeaz gain balorazio pertsonala erantsi diot, berriak hori merezi zuela iruditu zaidanean.

Azkeneko honetan, agur esatearekin batera, datozen hilabete eta urteetan nire aburuz pil-pilean egongo diren gaiak aipatu nahi ditut.

Energia nuklearrari dagokionez, Fukushima zeresana ematen jarraituko du, eta horri Garoñaren inguruko erabakiak gehituko zaizkio. Bestalde, berriztagarrien hedapena ez da erraza izaten ari gure inguruan; bi energia iturri moten arteko lehia gogorra izango da epe motzean.



**Ezkerrean, Marte; planeta gorrian bizia aurkitzeko aukerari buruzko eztabaidak ugaritu egingo dira. Eskuinean, CERNeke partikula azeleragailua, Genevan. Partikula gero eta txikiagoi buruzko ezagutza handitzeak gailu ahalmentsuagoak sortzeko aukera emango du.**

Marten ur gazia eta, horren ondorioz, bizia aurkitzeko aukerari buruzko eztabaidak ugarituko dira. Bitartean unibertso hamaika txoko arakatzen segituko dugu.

Volkswagenen aferak auto elektrikoaren bidea indartuko duelakoan nago; batez ere horren aldeko irizpide politikoak indartzea espero dut.

Komunikazioen alorrean telebistak, ordenagailuek eta smartphoneek konbergentziarako bidea etenik gabe indartuko dutelakoan nago.

Genetikan, ikerketak aurrera egin ahala, beraren inguruko eztabaida etikoak indar hartuko du.

Gero eta partikula txikiagoi buruzko ezagutzak gero eta gailu ahalmentsuagoak osatzeko aukera emango digu.

Azkenik, klima aldaketari eta ozono geruzako zuloari so egin nahi diet. Izan ere, bere horretan jarraituko duen Lurraren beroketari gehitu behar zaio ozono geruzaren zuloa neurtzen denez geroztik 2015ean izan duela hedaturarik handienetakoa. Zalantzarik ez, ondorengo belaunaldi arazoak uzten espezialistak gara. ■

### Karbono dioxidoa harrapatzeko sistema berria

Aireko CO<sub>2</sub>-a harrapatzeko material berri bat sortu dute ikertzaile korear batzuek: karbono dioxidoa fisikoki atzematen duen material mikroporoduna. *Science* aldizkarian azaldu dutez, abantaila handi bat du orain arte zeregin horretarako erabili izan diren materialen aldean: urak ez dio eragiten.

ttiki.com/342133  
(Euskaraz)

### Gaitzen transmisioa gelditzeko eskuak garbitzearen garrantzia

Urriaren 15ean Eskuetako Higienearen Munduko Eguna ospatu zen, Osasunaren Munduko Erakundeak sustatuta. Laster gripe eta katarroen garaian sartuko garenez, garrantzi berezia du gaiak. Kontuan izan behar da gaixotasunen %80 ukimenaren bidez transmititzen direla.

ttiki.com/342134  
(Frantsesez)

### Matematika, poliziaren laguntzaile

Los Angelesko (AEB) poliziako zenbait komisariatuan UCLA unibertsitateak sortutako eredu matematiko bat erabiltzen hasi dira delitu gehien non gertatuko den aurreikusteko. Sistema arrakastatsuzat jo dute nonbait, eta hiriko polizia sailen bi hereneta-za zabaltzea erabaki dute.

ttiki.com/342135  
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com  
T.943 37 67 16

## Ohepeko sorta

UMETAKO OROITZAPEN BAT. Lotara ezan eta loak harrapatu aurreko tartean edo lo-putzuetan harahona ibili bitarte horretan: belaun-katiluaren parean kosk, besape inguruko mami gozoan kosk, lepo-zamarrean kosk... Hozkadaz josita esnatu naiz, hazka batean. Arkakusoen balnearioa dirudi nire oheak. Gosaritakoan amonak ohekideen erasoaren ondorioak nire azalean ikusi orduko, etxe atzeko baratzeria bidali nau, menda bila. Eskuera duen sendabelarren baratzean, menda nagusia mendazuria, astamenda, kukuso-belarra edo mendaurdina da, *Mentha suaveolens* edo *Mentha x rotundifolia*.

Gosaldu eta lehenengo lana arkakusoen aurkako erabateko gerra, eta arma bakarra: hari mutur batekin lotutako menda sorta eder bat. Ohea ireki, goiko maindirea ondo atzeraino eramanez, eta ohe barrua bera, gainontzeko altzariak eta logelako hormak ondo igurtzi. Arkakuso sarraskiaren ondoren sorta ohearen azpian utzi, handik atzera beste arkakusoren bati inguratzea bururatzen bazaio zer datorkion jakin dezan. Oherakoan, gure arma han zela jakinik, alde ederrean hartzen ninduen loak. Gaztelaniaz *matapulgas* eta katalanez *matapuces* deitzen diote gure kukuso-belarrari.



*Mentha rotundifolia*. Mendazuria, astamenda, kukuso-belarra...

Astamenda gogotik erabiltzen da sendabelar modura. Ikerketa ugariren gaia da, eta maiz azaltzen da haren mesedeen berri. Adibidez, haren olio edo ura erruz hartzeak abortua eragiten zuela jakina zen, baina onddo eta bakterioen aurkari bikaina dela erakusten duten gero eta frogak gehiago dago.

Astamenda bizi den tokian, asuna (*Urtica dioica*) ez da urruti izango. Biek dituzte gustuko lur heze eta ur-asetuak. Asunak heldu

eta erretako azalean astamendarekin igurtzi bat eman eta azkura lasaitzen dela esan ohi da. Hozkada eta erredura, astamenda helduetarako erremedio.

Ohepean astamendaren beharrik ez duzu izango baldin eta lastaira ziabelar horiz (*Galium verum*) osatu baduzu. Belar horrek kumarina du osagai, eta kumarina pozoiz indartsua da. Hurbildu ordurako akabatuko luke arkakusoa. Arratoi pozoia egiteko erabiltzen da. ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Erreterian dugun baserriko lursailean menda-belar ugari ateratzen da. Ereku horretan dauden menda-belar eta osinak gutxitzeko zer egin dezakegun

jakitea gustatuko litzaiguke. Informazio edo aholkurik baduzu guretzat?

**Javier Rodrigo (Erreteria)**

Kaixo Javier. Menda-belarra aipatzen duzunean menda zuria edo astamenda deitzen denaz ari zarela iruditzen zait, hau da, *Mentha suaveolens*. Bai menda hori bai asuna (*Urtica dioica*) etxeakoak ditugu. Gure aldamenean bizitzera ohituta daude. Biei nitrogeno asko eta hezetasun handia duten lurrak gustatzen zaizkie. Nitrogenoa geuk ematen diegu: simaur, luar, kaka eta oro har usteltzen

ari den edozein hondakin organiko.

Beraz bi landare horiei aurre egiteko lurra aldatu beharko genuke. Lan zaila. Errazagoa da moztuz saiatzea. Biek ala biek lurpean sustrai lodietan jasotzen dituzte erreserbak. Maiz moztuz, hilean bitan eta ahal izanez gero ilgoran, erreserba horiek agortzea lor daiteke, eta agur menda, agur asun... ■



Gure kultura iraultzen ari den liburua

Paul Nicholson, Vía Campesina:

**“Jakoba Errekondoren lana sostengu finkoa da gure elikadura subiranotasunaren kontzientzia handitzeko eta balioan jartzeko”**

BIZI BARATZEA guztiok irakurtzeko liburua da, batzuek ekoizteko erreferentzia praktikoak ematen dizkigun eskuliburu gisa erabiliko dugu, baina denaren gainetik, liburu honek belaunaldiz belaunaldi bildutako baratzearen gaineko ezagutzaren lekukotza ematen du eta jakituria gaurkotzen du. Gainera, leku bakoitzean eman zaizkien izen zehatzak eta hizkuntza aberatsa berreskuratzen ditu.

Jakoba Errekondok egun galtzeko arriskuan diren zientzia eta eza-gutza jaso ditu. Iraultza berdeak dakarren ekoizpen ereduaren porrota da, eta berau oinarritzen da hazi “hibrido eta hobetueta”, enpresa agrokimikoen kontrolpean, ongari kimikoen erabilera, erregai fosilen dependentzia. Eredu horrek kulturalki gutxietsi egin du eta lurperatu nahi izan du baratze zaintza jasangarria, sana, osasungarria eta gizartearentzat elikadura subiranotasunerako ezinbestekoa dena.

Jakoba Errekondo, bere bizitza ibilbidean testigu eta aktibista da arbasoen eta egungo ezagutzen ondare hauetan. Liburu hau da eza-gutza hori aitortzen eta balioan jartzen duena.

Autore askok idatzi du baratze zaintzari buruz, esaterako John Seymourrek eta Mariano Buenok, baina *Bizi Baratzeak* gure errealitatea deskribatzen du, gure baserriarren zientzia, gure kulturara eta gure errealitate agronomora egokitutako hizkuntzan. Horregatik, liburu hau erreferentzia da, produktibismora bultzatuak izan garen askorentzat korapilatsuak diren hainbat gaitarako (esaterako, ureztaketa erabili edo ez) ikasteko erabiltzen duguna. Belaunaldi bat bada, egon, galdua eta kultura gabetua izan dena gure ezagutza ondarearekiko.

Ikaskuntza prozesu bat da eta liburu hau bidelaguna da indarrean den logika produktibista utzi eta lurrarekiko gure harremana berrikasteko, Ama-lurra baita osasunaren iturburua, eta kulturalki herri izaera ematen diguna. Kontzeptu hauen dibulgazioa oinarritzakoa da bizitzen ari garen aldaketa sozialean. Jaten duguna, nola ekoizten den, nork eta non ekoizten duen, horrek denak funtsari eragiten dio. Eztabaida politiko eta eraldatzailea da, zeren erabaki horietatik definitzen dugu nola bizi dugun gure harreman soziala eta ekonomikoa eta horrek guztiak ingurumenean duen eragina eta ondorioa klima aldaketan.

Jakoba Errekondoren etengabeko ikerketa eta dibulgazio lana, herrikoia eta elkarrekintza eraikia, sostengu finkoa izan da gure elikadura subiranotasunaren kontzientzia handitu eta balioan jartzeko, egungo belaunaldientzat, baina are gehiago etorkizuneko belaunaldiaren erreleborako.

**Eskaerak:**

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €  
 ☎ 943 371545 · [www.argaia.eus/denda](http://www.argaia.eus/denda) · [denda@argaia.eus](mailto:denda@argaia.eus)  
 Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

**AURKEZPEN SOLASALDIAK**

**herriz herri**

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Ondorengo hitzorduek:

**Urriak 30**  
Berastegi

Udaletxe aretoan, 18:30ean.  
Kultur astearren barruan.

**Azaroak 4**  
Gasteiz

Oihaneder Euskararen Etxean,  
19:00etan.

**Azaroak 5**  
Mendaro

Trinidadeko basilizian, 18:30ean.

**Azaroak 8**  
Biarritz

Lurruma azokan, Irato aretoan.  
Ordua zehazteke.

**Azaroak 9**  
Zaldibia

Kultur Etxean, 18:30ean.

**ANTOLATU ZURE HERRIAN**

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

[sustapena@argaia.eus](mailto:sustapena@argaia.eus)

☎ 943 371 545

# Lehen estatuaren azken gerra


SAN MARINO, K.O. 301. Hiriak Erromatar Inperiotik bereiztea lortu zuen eta, ondorioz, munduko estatu subirano zaharrentzat jotzen da maiz, definizioak gorabehera. Baina titulu hori ez dator bat hiri-estatuak duen tamainarekin eta nazioarteko garrantziarekin. Europako estaturik txikienetakoa izanik (61 km<sup>2</sup>), gatazketan neutraltasuna atxikitzea ezinbestekoa izan du biziraupenerako.

Bigarren Mundu Gerran ere San Marino neutrala izan zen 1944ko uda arte. Mussolini erori ondoren, Reichak Italia iparralde militarik kontrolpean hartzea erabaki zuen. Hori lortzeko bidean, alemaniarrek estatu-txoarekin egin zuten topo eta ia nahi gabe eraso eta hartu zuten 1944ko ekainean.

Inbasioak ez zuen luzaroan iraun. Aliatuak penintsularen hegoaldetik aurrera egiten ari ziren eta, berehala, alemaniarrek San Marinotik alde egitera behartu zituzten. Itxuraz, inbadi-tzaileak atzera egiten ikusteak adorea eman zien sanmarinotarrei: Alemaniarri gerra formalki deklaratzera erabaki zuten.

San Marinon ez zuten espero alemaniarrek berriro aurrera egingo zutenik. Aste gutxiren buruan, Alemaniak tropak berrantolatzea lortu zuen eta aliatuak Italiatik egozteari ekin zion berriro. Helburu hori erabat lortu ez arren, aliatuen aurrerabidea mantsotu zuten eta zenbaitetan arerioek zertxobait atzera egitea ere lortu zuten. Estatu ñimiñoa tartean harrapatu zuten, berriro. Atzera nazien eskutan egonda, San Marinoko agintariei kemen guztiak joan zitzaizkien: Ardatzaren indarrei telefonoz hots egin zieten baldintzarik gabe errenditzen zirela eta gerra uzten zutela jakinarazteko.

1945ean lortu zuten aliatuek San Marino alemaniarren atzaparretatik askatzea. Aurreko udako ikasgaia ahaztuta eta berriro ere alemaniarrek erretretan ikusita, sanmarinotarrak oilartu egin ziren. Telefonoaren



San Marinoko kale bat, 1944ko ekainaren 26ko bonbardaketen ondoren. Hiri-estatu alemaniarrek inbaditu zuten orduan, eta hortxe bukatu zen San Marinoren neutraltasuna.

entzungailua altxa zuten orduan, baina oraingoan gerra berriro formalki deklaratzeko. Tropa alemaniarrek jiratze hutsarekin sanmarinotarrak dardarka hasiko ziren, baina gainbeheran ari zen potentziak kezka larriagoak zituen. Gerra amaitzean, San Marinoren deklarazio ezdeusa indarrean zen oraindik. Hala, ahobekeria kolpe haiei esker eta bestelako meriturik egin gabe, San Marino Bigarren Mundu Gerrako garaile ofizialeko bat izan zen.

San Marinok izan badu armada, baina garairik oparoenetan 1.000 kidera ere ez da iritsi. Mugazain lanak egiten dituzte eta polizia zibilari laguntzen diote zenbaitetan. Bestela, izaera sinboliko eta zeremoniala du gehienbat. Gerra berriro piztuz gero, Italiako armadak izango luke San Marino defendatzeko erantzukizuna, bi estatuek hitzarmen bidez erabaki bezala. Munduko estatu zaharrenak eta txikienetakoa ez luke potentzia militar indartsuei gerra deklaratzeko aukerarik izango. ■

## Arrastoak

### Zertarako sartu zuten tea poltsatxoetan?

TEA edari britainiarretan britainiarrena izan arren, te poltsatxoak AEBetan —eta txiripaz— asmatu zituzten.

XX. mendeko lehen hamarkadan, Thomas Sullivan New Yorkeko merkataria latorrizko potxoetan saltzen zuen tea, eta bezeroei lagin txikiak bidaltzeko tea zetazko poltsa txikietan sartzen hasi zen. Poltsatxoa bilgarri hutsa zen; Sullivanek espero zuen bezeroek lagina potoko tea bezala erabiltzea, hau da, bilgarritik ateratzea infusioa prestatu baino lehen. Baina bezero askok te poltsatxoa kontsumitzeko prest zegoen produktutzat jo zuten: ez zuten landarea poltsatik ateratzen eta edaria egun maiz egin ohi den bezala prestatzen zuten.

Bezeroek ezusteko asmatzaileria zoriendu zuten, tea prestatzea askoz erosoagoa baitzen hari esker, eta jakina, produktua horrela prestatuta bidal diezaien eskatu zioten. Sullivan, eskariak behartuta, te poltsatxoak merkaturatzen hasi zen. ■



Hasiera batean, ondo bilduta egoteko sartu zuten tea poltsatxoetan, eta ez zuzenean uretan sartzeko.



GURE ESKU DAGOREN GOGOETA PROZESUA

# Herri galdeketak orain, Euskal Herriko Ituna ondoren

Bi urte pasatxoko ibilbidea egin ostean, gogoeta prozesuan murgilduta dago Gure Esku Dago. Barne antolaketa, egitekoa, jarduera eta finantzazioa eztabaidagai. Azken helburuari begira jarri eta hara iristeko eman beharreko pausoak marrazten. Herri kontsultak abiatuko dituzte, eta ondoren herriz herri Euskal Herriko itun bat eraikitzen hastea da asmoa, denen artean finkatzeko non, zer, noiz eta nola erabaki behar den.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

“GIZAKATEAREN OSTEAN, 240 bat lagun bildu ginen Gure Esku Dago-ren (GED) etorkizunaz hitz egiteko”. Angel Oiarbide mintzo da, mugimenduaren aurpegi publikoetako bat, nahiz eta berak bere burua “GEDko kidea” gisa aurkeztu. Hiru fase aurreikusi zituzten: Ehundu, adostu eta erabaki. 2015ean jendar-tea ehuntzea jarri zioten helburu beren buruari. Ehunka kide oihalen ekimenaren antolaketan jarri ziren bitartean, ordea, martxotik mugimenduko 80 kidez osatutako Bizka-rrezurra hausnarketa-taldeak txos-

ten bat prestatu du. Aurrera begira hartu beharreko erabakien eztabai-da da.

Estadioetako ekimenaren balora-zioa egin ostean, irailaren 26an egin zuten publiko txostena eta proze-suari eutsi diote. Herriz herri eta teknologia berriek eskaintzen dituz-ten plataforma parte-hartzaileen bidez, eztabaidatzen eta ekarpenak jasotzen hasi dira. Behin betiko era-bakiak azaroaren 21ean hartuko dituzte ez ohiko batzar nagusian. Aurrera begirako bidea finkatzen doaz horrela.

## Pentsatu globalean, ekin lokalean

Jexux Olaziregi Baguesek hasieratik egin zuen bat mugimenduarekin. Ficoban egin zuten lehen aurkezpe-netik konbentzituta joan zen etxera, Euskal Herriak halako zerbait behar duela pentsatuz. Eta berak, bertan ikusten zuela bere burua, Oiartzun-go taldean.

Talde polita osatu eta ekainaren 8ko giza katerako beren kilometroa betetzen egindako lan txukuna aipa-tu du Olaziregik. Iaz astero 6-8 bat lagun bildu izan dira, “taldearen erdia oso gaztea”.



GURE ESKU DAGO

Taldea osatzean egindako bi ekintza nabarmentzen ditu: Sentsibilitate politiko anitzak biltzen zituen 200 bat oiartzuarrekin aterazuten argazki erraldoia, dinamika herrian ezagutarazteko baliatu zutena. Eta 1978tik gaur arte Oiartzunen zinegotzi izandakoekin egindako argazkia. Bertan ondorengo alderdietako kideak batu ziren: EAJ, ezker abertzalea (HB, ANV, EH Bildu...), Euskadiko Ezkerra, Ezker Batua, PSE eta Hamaika Bat.

### 240 batzorde lokal, herrialdeka

“Dinamika sortu zenean, 2013an, ez zegoen egiturarik. Adibidetxo bat genuen, Nazioen Mundua dinamika. Juridikoki ere 2007an Idiazabalaren sortutako kultur taldea, hori izan zen kimua ekintza nazionala egiteko. Diruzaintza gisako egiturak oso exkakak ziren”, oroitzen du Oiarbidek. Mugimendua hazten joan da ordutik.

Egun, antolaketa aldetik, herrieta-ko ordezkariak herrialdeka antolatzen dira eta batzarrak egiten dituzte hilero. Astero biltzen den idazkaritza bat izan dute, herrialdeetako batzarretatik iristen ziren proposamenak martxan jartzeaz arduratu dena. Herrialdeka, ekimen zehatzak prestatzeko, mahai teknikoak ere badituzte.

Egitura honez gain, giza katearen aurretik, “beste guztiarekin batera, idazkaritzari pausoak ongi ematen ari ginelako zilegitasuna ematen zigun” beste gune bat sortu zuten: Adosgunea. Bertan zeuden sindikatuak, alderdiak, unibertsitateko jendea, enpresariak, kulturgintzako kideak... 50 bat lagun biltzen ziren.

Gure Esku Dago abiatu zen ikasurtean 130 herritan sortu ziren batzordeak, bigarrenean 240ra heldu dira. Euskal Herri osoan, baita diasporan ere.

Jexux Olaziregi Oiartzungo taldea ordezkatzu joan ohi da Gipuzkoako batzarretara, Tolosara. “Ia denetara joaten naiz, eta han hilero jende bera biltzen garenez, hasierako harreman militanteak harreman pertsonal izatera iristen dira”. Giro ona dutela nabarmentzen du.

### Nora doa proposamena?

Bost hilabetez mugimenduko 80 kidek landutako eztabaida proposa-

mena zabala dela dio Oiarbidek. “Ez genuen proposamen itxi bat eraman nahi, eztabaida eragin nahi genuen”. Azaroaren 21erako proposamen bat egingo du Batzar Orokorrean. “Txosten hori bide orri finkatu bat izango da, helburuak lortzeko geroz eta zehatzagoa”.

**Herriz herri formazio saioak antolatzea, eta 2016-2018 bitartean “ahalik eta herri gehienetan” kontsultak egitea planteatzen ari da**

Galdetegian 0 - 1 - 2 botoak eman behar dituzte kideek, beren adostasun mailaren arabera. Hiru helburu proposatzen dituzte, adibidez:

- GEDren helburua da euskal herritarrok dugun etorkizuna erabakitzeko eskubidea gauzatzeko, eragile eta erakundeekin elkarlanean eta tokian tokiko borondateari helduta.

- Helburu nagusi hau lortzeko prozesuak, berez, bestelako onurak ere ekarriko dizkio gizarteari (balore kolektiboak sendotzea, bizikidetzatza eta herri kohesioa hobetzea...) eta horiek dinamikaren helburu osagarriak izango dira.

- GEDn aniztasunari dagokionez, oreka bilatuko dugu, bai gure barne egituretan, bai gure jardueran. Aniztasuna modu zabalean ulertzen dugu, genero, adina, sentsibilitate ideologikoa, jatorri desberdinak eta abar, aintzat hartuta.

Hauen antzera, txostenean 62 proposamen egiten dira jarduera, antolaketa eta finantzamenduari buruz. Txostenean proposatzen den alaketetako bat, egungo egituraz gain, eskualdeka ere antolatzea da.

Oarsoaldean, adibidez, Eskura prozesuaren eztabaida eskualde mailan planteatu dute. Lau herrik osatzen dute: Oiartzun, Lezo, Oreteta eta Pasaiak. Pasaietan, Donibane-ra baino ez direla heldu aitortzen du Olaizolak, eta horretan badutela non lan egin. Hala ere, dagoeneko taldeak osatuta dauden herriotan egutegi bat planteatu dute eta prozesuaren lehen batzarrak egin dituzte herri guztietan.

Atera ohi diren eztabaida edo ekarpenei buruz galdetuta, Olaziregik ikusten du orokorrean mugimenduan antzeko gaiak ateratzen direla. Ekintzak antolatzeke orduan proposatutako epeei buruzkoak, antolaketa ereduaren edo mugimenduko kide izateko sortu dituzte hiru figuren definizio eta kuotei buruz (sarekide, bazkide eta lagun-tzaile) edo antolaketa ereduaz. “Hala ere, esan behar da %90ean sintonian gaudela”. Emaitzak azaroaren 21ean aurkeztuko dituzte.

### Pausoak ematen hasteko beharra

Sentsibilitate politiko ezberdinen arteko elkarlana. “Gauza asko hobetzeko daude, dudarik gabe, baina eman beharreko pausoak ezinbestean hasi behar genuen ematen. Aurrera begira eman beharrekoak ere lehenbailehen ematen has-tea komeni zaigu”.

Joan den ekainean, estadioak bete ez bazituen ere, bost hiriburutan milaka lagun batu zituen ekitaldian ondorengo zabaldu zuen Oiarbidek berak: “Erabakiaren aroa hasten dugu gaur, dinamika honen fase definitiboa, behin betikoa; gaur hasi eta erabakiaren egunean amaituko den azken txanpa”. Zer esan nahi du horrek baina?

2014an Etxarri Aranatzen eta Arrankudiagan egin bezala, 2016an kontsultak egiteko asmoa adierazi dute herri eta eskualde ugartan. Goierriko 22 herrietan, adibidez. Katalunia eredu hartuta, prozesua 2009ko irailaren 13an Arenis del Munt herrian egindako lehen galdeketa hasi zela ulertzen dute, eta hala, Euskal Herrian ere jarrera hori zabaldu nahi dute.

“Baldintzak dauden lekuetan kontsultak abiatuko ditugu”. Mugimendutik herri galdeketa protokoloa ere prest dute. Bertan, 20 orriko dokumentuan informazio erabilgarria jaso dute, herriz herri egokitu eta aplikatzeko: galdeketa bideratzeko organoak, galdeketa lurralde eremuak hautatzeko irizpideak, antolatu beharreko elkarriketa eta eztabaida publikoak, boto emaileak, hauek egiaztatzeke moduak, galdeketa leku eta ordutegia hautatzeko irizpideak, boto aurreratua, bozketak protokoloa mahaietan,



zenbaketa eta segurtasun berme eta erantzukizunak.

Olaziregik argi ikusten du Oiarzun herri horietako bat dela, eta gaiaren bueltan ari dira. “Baldintza objektiboak Oiarzunen eta eskualdeko leku askotan daude. Guztian egiteko ez dakit, baina prozesu honek erakutsiko digu nora goazen, eta ea zer baldintza berri sortzeko gai garen herriz herri”.

*Eskura* txostenean proposatzen da tokian tokiko galdeketen parte hartzearen emaitzak “metagarriak” izan daitezen modua bilatzea, baita 2016 eta 2018 bitartean “ahalik eta kontsulta gehien” egitea ere.

### Euskal Herriko ituna

Herri eta eskualde guztietan kontsultak egiteko baldintzarik ez dute ikusten GEDko kideek, eta gune horietan bereziki formazioa lantzen saiatuko dira: hitzaldi eta ekitaldiak beren helburuekin bat datozen baloreak sustatzeko.

Horrez gain, beste ildo bat ere identifikatu dute: Erabakitze Adierazpenak. “Ikusten dugu badaudela askatu beharreko korapiloak eta adierazpen horien bidez horiek askatzen hastea da asmoa. Non, zer eta noiz erabaki? Galdera potolo horien inguruan hausnartzen hasi behar dugu”, dio Oiarbidek.

Euskal Herri osoko ituna nola irudikatzen duen argitu du beasaindarrak: “Herriz herri eztabaida hori ireki nahi dugu, topagunea eraiki. 2017an, adierazpen guztiak jaso eta herri honetan esanguratsua izango den mahai bat sortzea litzateke asmoa, Euskal Herri osoko itun bat egiteko zer, noiz, nola eta non erabaki behar dugun erantzuteko. Korapilo berriak ateratzen joango dira, baina horiek askatzen joan behar dugu, bidea eginez”.

### Mugimendua ikergai AEBetan

Mugimenduari buruzko ikerketa egin dute Scensei ikerketa guneak eta Columbiako Unibertsitateak, GEDk eskatuta. “GED eta erabakitze eskubidea, iritziak, erronkak eta aurrera begirako gakoak” 36 orriko txostenean.

Azterketa politikoa egiteaz gain, GEDren lanaz herritarrek duten



JEXUX OLAZIREGIK UTZIA

### Gure Esku Dagok Oiarzunen egindako lehen ekintzetako bat, erabakitze eskubidearen aldeko argakia.

pertzepzioa neurtzeko elkarriketa eta inkesten emaitzak eman dituzte, lorpenak, ahulguneak eta gomen-dioak zerrendatuz. Lorpenetan nabarmendu dute “autodeterminazioari buruzko eztabaida aberastu” dutela, gizarte zibiletik sortutako ekimena dela eta “GEDk berak uste baino gehiago” markatzen duela agenda politikoa. Ahulguneetan mugimenduaren aniztasunaren inguruan gizarte sektore batek duen pertzepzioa aipatu dute. Jendartereko sektore askotara iristea falta zaiola uste dute ikerketan parte hartu duten batzuek, eta ezker abertzalearekin lotura ikusten diote beste zenbaitek. Euskal Herriko lurraldeen arteko desorekak ere nabarmendu dituzte, baita hainbat mezutan erabilitako “anbiguotasuna” ere. Gomendioetan, bere ideietan sakontzea gomendatzen dute, mezua argitzea hainbat kontutan, aniztasuna zaintzea, bere mezuari egokitutako jarduna ezartzea, eta beste erakunde eta alderdi politikoe-kiko independentzia bermatzen jarraitzea.

### Jarrera aldaketa lantzen

“Eskozia eta Kataluniako ordezkarien jarrera hango gizartearen jarrera isla da. Hemen gure ordezkariena ez bazaigu gustatzen, geure burua aztertu behar genuke, ea zein

den gure jarrera ikusteko”. Oiarbideren ustez ez da utopikoa pentsatzea gizarte zibilarren jarrera eta exijentziak aldatzen badira ordezkari politikoena ere aldatuko dela. “Kataluniarrek erakutsi digute hala dela, egun han prozesua gidatzen ari diren ordezkariak orain bost urte zeuden berak dira. Baina beste jarrera bat daukate, beren ordezkari jarrera aldatu egin baita. Eta ordezkari izan nahi baduzu, edo herritarren jarrera barneratzen duzu ala oso zaila izango zenuke ordezkari izaten jarraitzea”.

“Helburuen mailak adinako perspektiba behar dugu erabakitze eskubidearen alde gaudenok. Proporzionala. Helburu handiak badauzkagu, galderak behar du zer daukagun komunean. Dinamika gisa perspektiba hori daukagu, horregatik, mugimendua egitura-tzea komeni zaigu, hurrengo pausok eraginkorrak izan daitezten”.

Oiarbidek argi du Gure Esku Dago ez dela ordezkarien aurka egiteko sortua, herritarren protagonismo sentimendua elikatzea helburu duen tresna baizik. Behin herritarrek ahaldunduta, ordezkariengan isla ikusi beharko dela sinesten dute. “Uztarri beretik joan behar dugu ordezkari eta ordezkatuak, eraginkor izan nahi badugu herri gisa, ahalik eta eragile gehienek”. ■

# Islandiako eta Esloveniako zinema ezagutu nahi?

Istorio handiak, herri txikiak. Zaku horretan sartu dezakegu Euskal Herria ere. Herri txiki izanagatik makina bat istorio ditugu kontatzeko gure hizkuntzan. Euskara eta beste hainbat mintzaira ez hegemoniko ikusarazteko asmoz Europako hamabost herrialde eta estatuetakordezkariek manifestua sinatu zuten 63. Donostiako Zinemaldian:  
*Glocal cinema: Big stories, small countries.*

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

ORAIN URTE ETA ERDI inguru abiatu zuten proiektua; hainbat bilera egin dituzte zine-jaialdietan estatu eta herrialdeetako ordezkari politikoek, eta aurtengo Donostiako Zinemaldia baliatu dute egikaritu eta “bataiatzeko”. Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak azaldu duenez, Donostiako Zinemaldia bihurtu nahi dute Glocal cinemaren erreferente.

Hizkuntza ez hegemoniko horien artean daude ingelesa, frantsesa, alemana eta gaztelania salbu gainerako hizkuntza europar guztiak. Beraz, bistakoa da errealitate oso ezberdinak dituzten hizkuntzen arteko elkarlana sustatzea dela manifestuaren asmoa. European gehien ikusten diren filmen artean, 20tik 18 hizkuntza hegemonikoetan ekoitziak dira. Miren Aperribai Atera Films ekoiztetxeko zuzendariak honela azaldu du: “Esan dezakegu, gaur egun merkatu garrantzitsuetan, esaterako, Berlinen eta Cannesen, hizkuntza hegemonikoetan grabatutako pelikulek menperatzen dutela merkatua. Beraz, garrantzitsua da hizkuntza ez hegemonikoetan fokua jartzea eta pelikula horientzat merkatu eta zirkuitu bat bilatzea; ekoizpen, banaketa eta ikusgarritasunean”.

Proiektu honen bitartez EAEko zine aretoetara hizkuntza ez hegemonikoak ekartzea dute helburu,

noski, euskaraz azpitolatuta, eta gauza bera lortu nahi dute euskarazko filmekin gainerako herrialdeetan: “*Loreak* eta *Amama* filmek lortutako ikusgarritasunak argi uzten du posible dela”, bat egin dute horretan Muñozek eta Aperribai.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak deituta bildu ziren Norvegiako, Estoniako, Leto-

**European gehien ikusten diren filmen artean, 20tik 18 hizkuntza hegemonikoetan ekoitziak dira**

niako, Finlandiako, Danimarkako, Poloniako, Suitzako, Galesko, Esloveniako, Irlandako, Islandiako, Friuli-Venezia-Juliako eta Euskal Herriko ordezkari instituzionalak Donostiako Zinemaldian. Muñozek azaldu du euskaraz dituen arazoentzakoak dituztela Europako beste zenbait herrialdek ere: “Zergatik ez dugu elkarrengandik ikasten? Zergatik ez dugu sare bat biltzen?”. Eguno egoeraren aurrean European lobby antzeko bat sortzearen beharra azpimarratu du.

Europa kulturalki anitza da. Zenbaitetan, ordea, aniztasun hori merkatuaren zatiketa bezala ulertu ohi da. “Europak teorian apustu egiten du dibertsitatearen alde; baina ez dugu nahikoa indar beste herrialdeetan gure buruaren berri emateko”, azaldu du Muñozek. Izan ere, sailburuaren hitzetan euskara ez da etxerako kontu bat soilik: “Euskarak kanpora begirako leiho izan behar du”.

## Elkarrekin indartsuago

Honakoa da lortu nahi dutena: zinema industriako eragileei elkarlanean aritzeko plataformak eskaintzea, proposamenak garatzea eta erronka berriei elkarrekin aurre egitea. “Maiz esaten dute euskaraz ekoizteko orduan esaterako, masa kritikorik ez izatea dela arazoa baina arazo hori ez da gurea bakarrik”, azaldu du Kultura sailburuak. Zinemagintzan euskaraz dihardutenen arazo antzekoak dituzte estatu eta estatuarik gabeko herri askok; elkar babestearen eta elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratu du.

Manifestuaren sinatzaileen hitzetan sortzaileek eta ekoizpen etxeek euren artean harremanak izatea aberasgarria da denentzat: “Kooperezioa bideratu behar da”, dio Muñozek. Antzeko egoeratan lan egiten dutenen artean kidetasuna, interesa eta arreta lortzea errazagoa





Joxean Muñoz Kultura sailburuaren eta Miren Aperribai Atera Films ekoiztetxeko zuzendariaren ustez, “Loreak” (ezkerrean) eta “Amama” (eskuinean) filmek lortutako ikusgarritasunak argi uzten du euskarazko zinema Europan heda daitekeela.

izango delakoan daude: “Errazago identifikatuko gara hizkuntza ez hegemonikoan lan egiten duen batekin Londresen ingelesez egiten duen batekin baino”. Argi du Muñozek: “Zubiak egiten hasi gara baina sareak egin nahi ditugu”.

Prozesuan zehar Eusko Jaurlaritzaren zinemagintzako Euskal Herriko zenbait eragilerekin bildu da, proiektuaren berri eman eta euren ekarpenak jasotzeko: “Guk sareak jartzen ditugu, euren esku dago sare horietatik zer eta nora joango den erabakitzea”.

Eragile horietako bat da Atera Films; euskarazko filmak eta dokumentalak banatzen dituzte nazioartean, baita Europako film ugari euskaraz azpigitulatu eta bikoiztu ere. Aperribai Atera Filmseko zuzendariak azaldu du Gobernua ideia hau mugitzen hasi zenean, deitu zirela proiektua ezagutarazi eta ideia berriak jasotzeko asmoz. Aperribaik parte hartu zuen Berlinen egin zuten lehenengo bileran: “Eguneroko lanean ez egon arren proiektua babesten dugu; behar denean lagunduko dugu eta ematen

dituen pauso guztiak jarraitzen ditugu”.

Eragile bakoitzak bere ekarpena egingo dio proiektuari, nork bere esparruan. Atera Filmsek esaterako, merkatuaren eta produktore zein agente kulturalen inguruan duten ezaguera eskaini dezaketela azaldu du.

### Aurrera begira

Aurrera begira hainbat asmo dituzte manifestuaren sinatzaileek. Esaterako, Glocal cinemaren logotipoa egin nahi dute; “hizkuntza ez hegemonikoetan ekoiztutako filmak identifikagarriak izan daitezten”, azaldu du Aperribaik. Bide beretik hitz egin du Muñozek eta azaldu du ezinbesteko ezaugarria dela filmak identifikatu ahal izateko. Horrekin batera webgunea eta sare sozialak ere abiaraziko dituzte.

Proiektua kanpora begirako leiho bat irekitzeko asmoz sortu da, eta beraz, euren asmoen berri eman behar dute nazioartean. Horretarako publizitate kanpaina prestatuko dutela aurreratu du Aperribaik. Azkenik, aurrera begira nork bere

herrialdean konpromiso instituzionalak lortzearen garrantzia nabarmendu du zuzendariak; baita, aliatuak lortzearen beharra ere: “Ezinbestekoa izango da Europan gure produktuak banatzea, truketzea eta denon artean hizkuntza hegemonikoetatik kanpo dauden zinegileen lanak ikusaraztea”.

Donostian egindako bilerak jarraipena izango du; hurrengoa, Berlingo Zinemaldian izango da. Lau helburu nagusi landuko dituzte: lan taldea sortzea, kooperazio eta topaketak sustatzea, zinema europarraren hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza handitzea eta ikusgarritasuna areagotzea. “Zinema jaialdietan topaketak egin ditugu eta egingo ditugu, baina hala ere, etengabe gaude herrialdeekin kontaktuan, batez ere, posta elektronikoko bidez”, azaldu du sailburuak.

Badirudi, ondo bidean, laster EAEko zine areto askotan hizkuntza ez hegemonikoetan ekoiztutako filmak euskaraz azpigitulatu ikusteko aukera izango dugula. Euskaraz ekoiztutakoek berriz, Europako hainbat herrialdetan izango dute lekua. ■

Babeslea: Emun

**emun**  
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

- HIZKUNTZA ZERBITZUAK
- KULTURA ZERBITZUAK
- ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK
- PARTE HARTZE ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO  
www.emun.eus

# *Ozaki Gardenak*

*Aurri gara*

**AZAROAK 5**, Kafe Antzokia **BILBO** 21:30ean

**AZAROAK 12**, Jimmy Jazz **GASTEIZ** 21:00etan

**AZAROAK 20**, Jaizale Taberna **ARRASATE** (Jon Basaguren bakarka)

**AZAROAK 27**, Victoria Eugenia Klub **DONOSTIA** 20:00etan

**ABENDUAK 6**, Ahotsenea **DURANGO** 19:00etan

**URTARRILAK 9**, Subsuelo **IRUÑEA**



**SOIHIKA**

Portuetxe 88 bis, Donostia  
20018 Gipuzkoa • tel. 943 310 267  
musika@elkar.eus • www.elkargitaletxea.eus



## ETB digitalean Iruñerrian

UPNREN Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren egitekoa zela zioen, baliabide ekonomikoak hark jarri behar zituela... Gobernu aldaketarekin batera etorri da albistea: Iruñerrian, ETBren lau kateak Lurreko Telebista Digitalaren bidez ikusi ahal izango dira hemendik aurrera. Orain arte ETB1 eta ETB2 modu analogikoan ikus zitezkeen eta ETB3 eta ETB4 internet bidez baino ez. Iruñerriko herri-tarrek telebista bersintonizatu behar-ko dute Erreniega eta Ezkaba mendietako errepikagailuen seinalea ondo jasotzeko. Eusko Irratiko irratia-ki ere digitalean zabalduko dira.

## Euskara tituluaren egokitasuna aztertuko dute

GUTXITAN BEZALA, Eusko Legebiltzarrean, euskarari lotutako gai batean, adostasuna lortu dute bost alderdi politikok. Euskara tituluak, tartean egiaztagiri ezagunena den EGA, aztertuko dituzte probaren maila, edukiak eta emaitzak ebaluatzeko. EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEK adostu zuten testua, eta PPK eta UPDK baiezkoa eman bozketan.

Ezin esan alderdien adostasun-erako zioak berdinak izan direnik. Anjel Lertxundik urriaren 24ko *Berrian* jolas polita jarri zien irakurleei: “Talde politiko guztiak

etorri dira bat norabidea aldatu behar horretan, baina lupatxo batez begiratu bagenitu alderdi bakoitzaren motiboak, elkarren arteko talkak eta desberdintasun esanguratsuak topatuko genituzke. Joko polit bat proposatu nahi dizuet asteburu euritsurako. Adi, eta zorte on: zein alderdik erlatibizatu zuen tituluaren garrantzia; zein alderdik aipatu zuen bi hizkuntzen arteko asimetria; zeinek esan zuen ez direla EGAREN maila jaisteaz ari, orientazio filologikoaren pisua murrizteaz baizik; zein alderdik lehenetsi zuen porrot mailaren handia; zeinek proposatu zuen EGA eskatzea “behar denean soilik”.

Eusko Legebiltzarrek jarri dizkio etxeko lanak Eusko Jaurlaritzari. Lau hilabeteko epean probaren egoera ikertu beharko du eta hobekuntzak proposatu beharko ditu, errealitate soziolinguistikoari eta bete behar dituen funtzioei erantzun ahal izateko.

G. R. / ARGAZKI PRESS



5.000 lagun bildu ziren urriaren 24an, Baionan, Deia-ko manifestazioan. Leloak honela zioen: “Estatus bat lurraldearentzat, Estatus bat hizkuntzarentzat”. Montpellier (Okzitania), Ajaccio (Korsika) eta Carhaixen (Bretaina) ere egin ziren elkarretaratzeak.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Pobre gehiegi, Euskal Herri aberatsean

EUSKAL HERRIA ABERATSA DA, baina ez dirudi ondo banatuta dagoenik, pobrezia handia baitago. Ondorio hori atera liteke joan den astean Gaindegia behategiak publiko egindako txostenetik. Euskal Herriaren biztanleriaren %16,7, hau da, 3.124.259 lagunetik 521.751 pobrezian edo bazterketa sozialera jausteko zorian bizi da. Urtean 7.961 euro baino gutxiagorekin irauten dute heldu bakarria bizi den etxeetan, 5.971rekin bi heldu dutenetan eta 4.179 euro baino gutxiagorekin bi heldu eta 14 urtetik beherako bi adingabe bizi diren etxeetan. Lurraldeka, pobrezia tasa altuena Ipar Euskal Herrian aurkituko dugu (%18,1), gero EAeko probintzietan (%15,1) eta azkenik Nafarroan (%14,5). Datu global horretatik, beste bat zehatzagoa: adingabeen %20 (104.764 gazte) pobrezian edo gizarte-bazterketarako arriskuan bizi da.

Eta hala ere, Hego Euskal Herrian biztanle bakoitzeko BPGa 30.000 euro ingurukoa da; horrek erakusten du euskal jendartea egiaz aberatsa dela. Zerbait ez dabil ondo, aberastasuna hain gaizki banatuta egoteko. Egoc-

ra horrek pentsarazi beharko lieke erakunde, gobernu eta eragile sozial guztiei, beharrezkoa dela hainbat politika martxan jartzea Euskal Herrian bizi diren eta lan egiten duten pertsona guztiek oinarritzko beharrianak aseta izan ditzaten. Beste behin, halakoek, gure jendar-tean gailentzen den eredu sozioekonomikoa birpentsat-zeraz garrantzitate. Sistema kapitalistak pobretu egiten gaitu eta desberdintasun handiak sorrarazten ditu.

Iragan asteburuan, 150 eragile sozialen eskutik, milaka lagunek hartu dute parte Bilbon egindako Alternati-ben Herria ekimenean (ikusi ARGIA honen 44. orrial-dean), erakutsiz badaudela sistema neoliberal kapitalistatik haragoko bideak. Aukera daukagu bestela-ko eredu sozio-produktiboa eraiki eta aberastasuna modu justuagoan banatzeko; baliabideak ditugu kalita-tezko enplegua sortzeko, lana banatu eta pobrezia eta desberdintasun sozialak nabarmen jaisteko. Borondate politikoa behar da. Euskal jendarteak du hitza eta kon-promiso solidarioa.

Juan Mari Arregi

# Eskubideak erditzera, elkarlanean

Bizi! mugimenduak klima aldaketaren aurkako borrokaren testuinguruan jotako erronkari erantzunez, urriaren 24an Alternatiben Herria antolatu zuen Bilbon Euskal Herriko Eskubide Sozialen Aldeko Kartak. Auzi klimatikotik harago joan nahi izan zuten, ordea. Kartaren sorrerako filosofian sakonduz, eskubideen definizio berria mahai gainean jarri eta horiek gauzatzeko bideen aniztasuna nabarmentzea izan zuten xede, besteak beste. Aro berrian, hamaika aurpegi beharko ditu herri mugimenduaren estrategiak.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Irantzu Pastor

“EGUZKI SISTEMA batekin konparatzen dut nik; planeta bakoitzak bere orbita du baina denak eguzki beraren inguruan ari dira biraka”. Bilboko Alternatiben Herria gauzatzea ahalbidetu duen elkarlan ariketa modu horretan laburbildu zuen Mikel Saralegi ekimenaren sei bozeramaileetako batek, urriaren 24an egindako bat-bateko balorazioan.

Goizeko lehen ekitaldietatik iluntzera, jendetza bildu zen eguzki sistema horretan. Baina erne, ez ziren bisitari hutsak, mobilizatzen ari zen jendea baizik. Hala azpimarratu nahi izan zuten antolatzaileek bederen: “Mobilizatzeko modu asko dagoela erakusten ari gara”.

Mobilizatzeko modu asko, aldarrikapenak adina. Testuinguru berrian gaude, krisiak jota arlo guztietan (ekonomikoa, politikoa, ekologikoa, kulturala...), eta sistemari erantzuteko moduak aldatuz doaz, Olatz Dañobeitia Ceballos Alternatiben Herriko beste eledunetako baten ustez. Kultura politikoa desberdinek aspaldi ez bezala bat egiteak kultura politikoa berria ernatzea ekarri du. Eta kultura horren ezaugarri behinena bat pluraltasuna da, Dañobeitiaren berbetan: “Garai berrian gaude, askotariko estrategien garaian, eta ekimen hau horren erakusgarri da”.

Alternatibak eraikitzen ari diren subjektuek autonomiari eusten diote –orbitei, simul astronomikoa-ekin jarraituzera–, baina gero eta argiago ikusten dute gutxieneko kontsentsu batzuen inguruan batera aritzeko beharra dagoela. Besteak beste, zapalkuntzaren aurpegi ugari ere gero eta batasun handiagoa ageri dutelako.

Hala uste du Olatz Dañobeitiak: “Dagoeneko ez gaude 80ko hamarkadan; kapitalismoak, patriarkatuak, inperialismoak... elkar elikatzen dute, eta horrek bultzatzen gaitu geure buruei galdetzera: eraldaketa subjektuak zeintzuk dira? Zelan egin behar dute lan?”.

## Zer da eskubidea?

Iaz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta aurkeztu zuten 150 inguru sindikatu eta gizarte eragilek,

eta haiek deituta egin da Bilboko Alternatiben Herria –bidean lagun gehiago batu zaie, 167raino–. “Eskubideen Kartak Alternatiben Herria antolatu du; beraz, eskubidea eta alternatiba gauza bera dira?”, bota dugu galdera.

Olatz Dañobeitiak denbora hartu du erantzuna ondo mamitze-ko: “Eskubide Sozialen Kartaren filosofia hasieratik izan zen eskubideen formulazio berria egitea. Ohituta gaude eskubideak aldarrikapen bati lotzen; horren arabera, erakundeek, patronalari edo bestelako estamentu bati eskatzen zaion zerbait da eskubidea. Baina aldarrikapena beste dimentsio batzuetan ere egin daiteke. Alegia, eskubidea eskatu egin daiteke, baina baita eskuratu, gauzatu, erditu... ere”.

Ez bedi ulertu eraikuntzarik gabeko erresistentzia hutseko aro batetik gatozela, ohartarazi du Dañobeitiak, “Euskal Herrian oso mugimendu plurala egon da beti, beste kontu bat da zer gauza egin diren argitara eta zer gauza itzalean; ekimen honen helburua ere bada itzalean zegoena argitara ekartzea”.

## Eskubideen bermean jendarteak badu zeresana

“Erakusten ari gara bizi gaitezkeela beste era batera, kontsu-

**“Ohituta gaude eskubideak erakundeen aurrean aldarrikatzen, baina aldarrikapena beste dimentsio batzuetan ere egin daiteke; eskatuz, baina baita gauzatu, eskuratuz... ere”**

Olatz Dañobeitia Ceballos



## BILBOKO ALTERNATIBEN HERRIA ◦ TERMOMETROA







moaren alorrean, energiarenean, hezkuntzarenean, elikadurarenean...”. Gaur egungo eredu soziala gainditzeko alternatibak egon badaudela aldarrikatu zuten urriaren 24ko ekimena prestatzeko lanean aritutako eragileek. Egunean bertan emandako lehenbiziko balorazioan, nabarmendu zuten Alternatiben

Herria ez zela izan utopien azoka. Aitzitik, amets bat helburu baina oinak lurrean ondo bermatuta dituzte erakuslehoan paratutako hamai-ka proiektuek. Dagoeneko funtzionatzen duten alternatiba txiki eta ez hain txikien erakuslehoia izan zen.

Bestela esanda: ez dugu zertan inoren zain egon bestelako mundu

bat eraikitzeko. “Hori horrela bada, zein da erakunde publikoen betekizuna eskubideen bermeari dagokionez?”, galdetu diogu Olatz Daño-beitiari. “Ongizate estatutik gatzoz”, hasi da erantzuten, “eta testuinguru horretan erakunde publikoak jo izan dira eskubideen bermatzailetzat. Baina alde batetik, sekula ez da

## Aizu, eta kultura?

KULTUR ADIERAZPEN GUZTIEN baturak erakutsi du pentsamendu bakarrari eta kritikotasun ezari aurre egiteko txerto eraginkorra dela. Baina kontuan hartzen al dugu gizartea aldatu nahi dugula diogunok?

Arte sorkuntza kritikoa beti izan da deseroso sistema betikotu nahi dutenentzat; eta hala ere, ez duzu kultura aurkituko eraldaketarako agendaren muinean. Zergatuei eta konponbideei begira jarri ziren Irantzu Lekue artista gasteiztarra, EHZ jaialdiko Pauline Guelle, Iñaki Landa kultur sustatzailea eta hogeiren bat lagun Alternatiben Herrian, Gotzon Barandiaran kulturgilea zirrikatzaile lanetan zela.

“Kultur sorkuntza dirudunen menpe egon ez dadin sortu dira abangoardiak”. Lekuaren hitzak dira, Oteizaren ekarpena gogoan zuela. Herritarren parte hartzea pizteko kalea espazio nagusitzat hartuta, artearen eta ekimen sozialen arteko elkarlana azpimarratu zuen.

Krisiak ageriago utzi du kultura ez dela eskubidetzat hartzen. Murrizketen lehen biktima izan da kultur politika publikoen poltsa. Beraz, arteaz gozatzeko dirua behar da. “Industria kulturalak, industria den une bere-  
tik, negozio egitea du helburu”, Lekuaren ustez. Ifrentzua Pauline Guellek eskaini zuen. Salerosketen logikatik urrunduz, “amesten dugun gizartearen baloreak irudikatzen saiatzen gara EHZko arlo guztietan: kulturalean, politikoan, ekonomikoan, antolakuntza ere-

duan...”. Ezkerreko mugimenduen gabeziak kritikatzera zilegi dela, baina galdutako plazarak berreskuratzea herri-tarron esku baino ez dagoela oroitarazi zuen.

Eztabaidak laster hartu zuen bidea esparru malkarra-goetara. Zer egiten dugu guk egunerokotasunean kultura plazaratzeko edo sortzeko? Erakundeen eragin zuzen-  
nik gabe antolatzen ditugun eremuetan zer eredu bultzatzen dugu? “Bertsolari txapelketaren finalean 10.000 baino 11.000 lagun batzea al da arrakasta neurtzeko aldagaia?”, galdetu zuen Edorta urtuellarrak. “Gure jardunaren lehen helburua diruari edo ospari eskainiz, kapitalismoaren logika bera ez ote garen errepikatzen ari” aztertzea ariketa osasungarria izan daite-  
keela entzun zen plenarioan.

“Kulturak aldatuko ditu pertsonak eta pertsonak gizartea”. Ordena horretan neurtzen da kulturaren eraldaketarako gaitasuna Iñaki Landaren ustez. Eztabaidari aurrerantzean nola eman segida izan zen Barandiaranen azken galdera. “*Hay que hacer!*”, Landak aipatutako Lucio Urtubiaren hitzekin bat etorrita, mezu berria sortzeko gai izango den jende multzoa nola aktibatu edo antolatu, ordea? Ahotsenearen bueltan ari diren kultur sortzaile, sustatzaile eta komunikatzaileen artean aurkituko dugu erantzunen bat hurrengo Durangoko Azokan.

**Axier Lopez**





Ehunka lagun bildu zituen “Herrialdeei begirada bat, burujabetza sozialerantz” mahai-inguruak. Mario Zubiaga, David Fernandez eta Cat Boydek esan zuten askapen nazionala eta soziala bereizezinak direla.

hala izan guztiz; eta bigarrenik, gero eta gutxiago da. Nire galdera da: posible da erakundeetatik egikaritzea guztia? Behin horra helduta, beste elementu bat agertzen zaigu eztabaidaren erdian: komunitatea. Agian, komunitateari dagokio zenbait eskubide egikaritzea”.

Daño-beitiak gogorarazi digu ezkerren eztabaida klasikoa dela –eta XX. mendean izandako zenbait zatiketaren zergatietako bat– eremu publikoak eta komunitarioak izan behar duten pisuari buruzkoa. “Uste dut Alternatiben Herriaren barruan dauden eragile askok garrantzi handia ematen diotela publikotasunari, eta beste batzuen iritziz hainbat eskubide gauzatzea komunitatetik (autogestiotik) etorriko direla. Oraingo testuinguruan, bat egiten dute ikusmolde horiek. Herritarrok, batuta, zer gaitasun politiko daukagun esploratzeko garaia iritsi da. Eta gaitasun itzelak ditugu”.

### Eguneroko hautuak politika dira

Harrokeria litzateke Alternatiben Herriak eman zuen guztia artikulua honetan laburbiltzen saiatzea, bizitza bera laburbiltzen saiatzea bezainbat. Izan ere, ekimenaren hasierako diseinuan, Bizitzaren Jasangarritasuna

na zen Bilboko Areatzaren inguruan kokatu beharreko eremuetako bat. Azkenean arlo horri espazio berezi bat ez eskaintzea erabaki zuten, Alternatiben Herri osoaren gaia horixe bera zela iritzita: bizitzaren jasangarritasuna.

“Maila pertsonalean, pertsonen arteko harremanetan, naturarekiko loturan, herri moduan... burujabe izateko nahia agertu dugu”, zioen Mikel Saralegik urriaren 24an. Burujabetzaren aldeko borroka plano askotan eman daitekeela eta ematen dela erakutsi nahi izan zuten, besteak beste, Bilboko Alternatiben Herrian; hots, eguneroko hautuek ere maila politikoa dutela.

Olatz Daño-beitiaren esanetan, “autodeterminazio asko daude ukatuta herri honetan, autodeterminazio nazionalaz gain, baina orube politiko komuna eraiki dugu autodeterminazio horiek gauzatuz doazenerako”. Ongarri onenarekin aberastuta dago orube hori, Alternatiben Herria altxatu dutenen esanetan: “Antolatzeke eran, egin diren planteamenduetan, aurkeztu diren esperientzien arteko elkarrizketan... askatu dira beste batzuetan preso eduki ditugun energia, ilusioa eta irudimena. Eraldaketa dator”. ■



GAUR, EUSKARA PRAKTIKATU BIHAR, EUSKARAZ BIZI

## Jardunaldiaren II. Edizioa

Bilbo, 2015eko azaroaren 13a

### JARDUNALDIAREN HELBURUA

Euskararen normalizazioa lortuko bada motibazioan eragitea beharrezkoa dela esaten denean, askotan ikasteko motibazioaz ari garela pentsa daiteke. Argi dago, hitzun berriak irabaztea dela erabileraren erronkarik garrantzitsuenak, baina ez da bakarra. Motibazioa ikasketen prozesu osoan, eta bizitza osoan, landu beharreko faktorea da.

Jardunaldi honetan bereizki mintzapraktika egitasmoetan gabilzanok motibazioan eragiten duten faktoreak eta motibazio positiboa lantzeko estrategiak aztertu nahi ditugu. Egunerokotasunean jorratu behar dugun diskurtsoan lagungarri suertatzeko.

### EGITARAUA

- 09:30 Harrera eta ongi etorria
- 10:00 Lorea Agirre:  
*Nor izan, nola egin, han eragin*
- 10:30 Karmelo Ayesta:  
*Euskaldun baten hizkuntza-bidaia*
- 11:00 Lutxo Egia:  
*Transitoak*
- 11:30 Atsedena
- 12:00 Mahai-ingurua hizlariekin
- 12:45 Agurra

### LEKUA

Ondare aretoa (M<sup>a</sup> Diaz de Haro, 11), Bilbo

### IZENA EMATEKO eta INFO +

Izena emateko azken eguna: azaroaren 10a.  
[praktikatu.jardunaldia.blogspot.com](http://praktikatu.jardunaldia.blogspot.com)

### Antolatzaileak:



### Babesleak:



# Zergatik ez du sortu behar Hitler berri bat XXI. mendean?

XXI. mendeko europarrok pentsatu dezakegu etika mailan hobeak garelako 1940ko hamarkadakoak baino, agian oker ulertu dugulako nazismoak eragindako Holokaustoaren mamia. Baina katastrofe baten aurrean egokituz gero, klimaren aldaketa gogor baten ondorioekin esaterako, ez ote gaituzte Hitlerrena bezalako soluzioek tentatuko?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ESTATU IRAUNKOR BATEN ASMOA nekez izango da amets totalitarioak bezain erakargarri. Politika berdea inoiz izango ez den bezala lur beltzaren gainean odol gorria den bezain kitzikagarri”. Horrela mintzo da Timothy Snyder (Ohio AEB, 1969) historialaria, aurten “*Black Earth: The Holocaust as History and Warning*” (Lur beltza: Holokaustoa historia eta abisu moduan) liburua plazaratu duena.

*The Guardian* egunkariari bidali dio Holokaustoak bidaltzen digun oharatarazpenaren mamia: “*Hitler’s world may not be so far away*”, alegia, balitekeela Hitlerren mundu hura gaur guk hain urrun ez edukitzea.

Snyder doktorego tesian gidatu zuen irakasleak argazki bat erakutsi omen zion, nazien okupazio garaian Varsoviako apartamendu batean egina. Wanda J. zen, irakaslearen ama judua, alemanek ekin ziotenean judu varsoviarrak metaka hiltzeari lortu zuena familia salbatzea.

Wandaren familiari ere agindu zioten ghettoan babestea, baina alde egin zuen laguntza eskatuz adiskideei, ezagunei eta azkenean baita ezezagunei ere. Ghettoa eta gero Varsovia osoa naziek erroetaraino kiskali zituztenean, Wandaren familia salbatu zen juduei lagundu zieten jendeen sen moralari esker.

“Gehienok uste dugu –dio Sny-

derrek– instintu moral horren jabe garelako. Agian amets egiten dugu etorkizuneko katastrofe batean erreskatatzaile arituko ginatkeela. Baina estatuak suntsituko balira, lekuko erakundeak usteldu eta pizgarri ekonomikoak bideratu hilketa-aren alde, gutako gutxik jokatuko luke zuzen. Motibo gutxi daukagu pentsatzeko 1930 eta 1940ko europarren gainetik gaudela etikan, edo Hitlerrek halako arrakastaz aldarrikatu eta burutu zituen ideietara gutxiago makurtuko ginatkeela”.

Holokaustoa hasi zen hilketak baino lehenago, nazien oinarrizko ideiak herritar askoren artean sustatzen. Hasteko, gizakiak ez daukala sen moralik, hori juduen asma-kizuna dela. Gizakiak arrazen arteko borroka odoltsuetara kondenatuta daudela, arraza sendoenak eskuratu ditzan mugatuak diren natur baliabideak.

*Lebensraum* kontzeptua da gakoetako bat, gaur *habitat* edo *txoko ekologiko* esaten duguna. Alegia, arraza guztiak dabiltzala bizitzeko leku handiagoaren bila. *Lebensraum*ek esan nahi du *egongela* ere, familiaren konforta eta ongizatea iradokitzen dituen.

Hitlerrek uste zuen jendearen atsegin eta segurtasun desioa ezin-go zela sekula ase, alemaniarren nahia zelako Ipar Amerikarren mai-

John de Nugent ultraeskuindar amerikarren gunean ageri den argazkian, herritarrak tropa eta agintari alemanei ongi etorria egiten 1938an Austrian, herrialde hau Hitlerrek Alemaniarentzako hartu zuenean. Dio Timothy Snyderrek: “1938, 1939 eta 1940ko operazioak prestaketa izan ziren, estatuak suntsitzeko esperientzia metatzea. Gero ekialdeko frontean gerra hasirik, bi aukera politiko sortu zituzten. Eslaviarrak animalia-tzat irudikatuz, haien egitura politikoak suntsitzea justifikatu zen, gero Holokaustoa bururatzeko zonak sortuz. (...) Ez Holokaustoa bakarrik, Alemaniak krimen nagusi guztiak burutu zituen instituzioak eraitsi, hondatu edo ahuldutako lekuetan. Bost milioi eta erdi juduren hilketa, hiru milioitik gora gerrako preso sobietarrena eta partisoen kontrako operazioetan hildako milioi bat zibile-na... denak gertatu ziren estaturik gabeko eremuetan”.

lan bizitzea. Horregatik sinplekeria da esatea Hitler juduen edo eslaviarren etsai izatera mugatzea. Horien etsaia zen horiek ikusten zituelako Alemaniak bere destinoa burutzeko oztopo. “Ekologia egoki bakarra zen etsai politikoa eliminatzea; politika egoki bakarra zen lurra garbitzea; helburu horiek lortzeko estatuak suntsitu behar ziren”.

## Bizirauteko, pobreagoak hil

Juduen masakratze orokorra naziek hasi zuten estatuen suntsiketa bikoi-tza jasandako eremuetan, Stalinen eta Hitlerren arteko tratuak hondoratutako herrialde baltikoetan, Ukrainan eta batez ere Polonian. Alemaniak tratua hautsi eta herrialde horiek bereganatu zituenean, laguntzaile antisemita asko aurkitu zituen sobietarren kolaboratzaile-tzat jotako juduak hiltzeko gosez. Era berean, soldadu zein polizia alemanak erraz ohitu ziren etsai gorrotatuak hiltzera.

Estatuak ahuldu eta desegindako zulo beltz horietan erraza zen juduak hiltzea, Alemanian bertan baino askoz gehiago hil zituzten. Aldiz, juduak salbatzen zituztenak sarri ziren jendeak estatu baten edo antzeko instituzio baten aldeko ideiak zeuzkatenak.

Paniko ekologikoa da beste gako-etako bat. Gerra ostean nekazaritza





“Apokalipsia ageri denean ortertzean, soluzio zientifikoak bilatzea denbora galtzea dirudi, borrokak onargarria dirudi eta odolaren eta etnizismoaren demagogoak denen aurretik jartzen dira”.

Hitler, dio Snyderrek, lehen globalizazioaren semea zen, XIX. mendeko inperialismoek eraikiarena. Gu XX.eko amaierako bigarren globalizazioaren umeak gara. Duela 80 urte bezala, ereduak bere mugekin egin du topo.

Asteotan eztabaidatzen da planetaren beroketa, mendea bukatzerako 4°Ckoa gerta daitekeena. “Litekeena da orain arte ezagutu ez bezalako ekaitzek, lehorteek, horiek eragindako gerrek eta migrazioek berotzea baliabideen segurtasunari buruzko kezka eta Hitlerrena bezalako politikak onargarriago bihurtzea. Hitlerrek erakutsi zuen gizakiek biharko krisi baten mehatxuagatik justifikatu dezaketela gaur bertan neurri drastikoak hartzea”.

Estres handi baten eraginpean, edo trebeziak jokatuta, politikoei lortu lezaketena nahastea Hitlerrek bezala natura eta politika, ekosistema eta etxeko erosotasuna, bizitzeko beharrezkoa eta kontsumitzeko irrikatzen duguna. Azkenean, konponezina dirudien arazo baten errua egozteko giza talde jakin bati.

Ipar Amerikatik idazten du Snyderrek, jakinik han baino lehen klimaren erotzeak kalteak eragingo dituela Afrikan, Ekialde Hurbilean eta Txinan. Politikariei ohartarazten die Hitlerrena bezalako kalamitateetan ez bukatzekotan burutsua dena defenditu behar dela burrunbatsua dena baino gehiago. ■

industrialaren *iraultza berdeak* erakutsi zenez, teknologiak bazeukan ahalmena populazio gero eta handiagoak elikatzeko. Baina Hitler eta naziek erabaki zuten Alemaniak bizirauteko eremu zabalagoen beharra zeukala eta hala hasi zuten funtsean gerra koloniala izan zena.

“Hitlerren programak biologia eta desioa nahasten zituen. (...) Bizi maila eta bizitzea bera nahasten direnean, gizarte aberats batek gerra egin diezaieke herri pobregoei bizirautearen aitzakian. Dozenaka milioi herritar hil ziren Hitlerren gerran ez alemanak bizi ahal izan zitezen, baizik eta alemanek *American dream* (amerikarren ametsa) alkantzatzeko borrokan”.

Timothy Snyderren aburuz

antzeko aldi historikora ari gara hurbiltzen Mendebaldean. Janari faltarik ez da gaur egun, baina herrialde aberatsenak hasi daitezke kezkatzen etorkizuneko eskasiez. Herrialde aberats bateko liderrek zabaldu dezakete panikoa biharko balizko murrizketak direla eta aurretiaz jokatu, arazo ekologikoaren arazotzat giza talde bat markatu eta estatuak suntsitu, nahita edo nahi gabe, behin gurpila abiarazita.

XX. mendearen bigarren erdian etorkizunak gauza segurtatua zirudien. Konkurrentzian ziren kapitalismoak eta komunismoak biek agintzen zuten etorkizun oparoa. Baikortasun hura joan zen. Eliteetan bezala masen artean dena da nahasmen, kezka, etsipen, dilema.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

## Krabelinaren itzala

**IBERIAR PENINTSULA** lurrikara txikia bizitzen ari da asteotan eta Europan begi asko jarri dira hona begira. Irailaren 27tik Kataluniako prozesuak hartu duen abiada hor da eta orain Portugalen izan berri diren hauteskundeetan bertako ezkerreko indarren aliantza eman da hango eskuinak gobernuan jarraitu ez dezan. Abenduaren 20an, halaber, hauteskunde orokorrrak izango dira Espainian eta Podemos fenomenoari duela urtebeteko indarra ikusten ez bazaio ere, oraindik inork ez daki zer gerta litekeen.

Euskal Herrian *vinho verdea*, jate-txe merkeak eta Grandola Vila Morenaren herrialdea da atlantikoko mendebaldekoa, edota hango immigranteak azken hamarkadatan hainbatetan bidali dituena. Hortik aurrera arreta gutxi Portugal, autoz 4-5 ordutan bertan bagaude ere. Fisikoa baino distantzia bestelakoa da.

Greziaren ondoren austeritatearen gerrikoa gehien estutu behar izan duen Europako herrialdea da 1974an krabelinen iraultza egin zuen hura. Hori da azken hamarkadetan Espainiarekin alderatuta izan duen aldaketa handienetakoa: han iraultza batekin iratzartu ziren diktaduratik, Espainiak diktaduraren triskantzak estaliko zuen trantsizioari ekin zion bitartean. Mario Soaresen sozialdemokraziak lortu zuen ezkerreko iraultzaileen norabidea bideratzea, hango sozialismoa sozialdemokrazia bihurtuz eta sozialdemokrazia mozorrorik gabeko eskuina.

Koalizioan aurkeztuta alderdi sozialdemokratik (PSD) eta konserbadoreek (CDS) irabazi zituzten urriaren 4an parlamentua hau-

tatzeko egin ziren hauteskundeak, baina ez gehiengo osoz. Horra kalapita. 107 boto eskuinak eta 122 ezkerrek (PS, Ezkerreko Blokea eta PCP). Alderdi Sozialista atera da garaile nabarmen hauen artean (1,74 milioi boto, boto guztien %32,4), eta gehien hazi den alderdia Podemosen antz handiena duen Ezkerreko Blokea da (551.000 boto eta %10,2); komunistek 446.000 boto lortu dituzte, botuen %8,3.

**KONTUA** da inork gutxik espero zuela PSk Blokea eta PCPrekin bat egin zezakeenik, baina gertatu egin da eta joan den astean hiru indarrek Eduardo Ferro Rodrigues PSko ezker hegaleko buruzagia hautatu zutela Legebiltzarreko lehendakari. Gobernua osatzeko borondatea ere agertu dute ezkerreko hiru indarrek, baina Cavaco Silva (PSDkoa) Errepublikako lehendakariak PSDko Passos Coelho izendatu du Gobernu

*Inork gutxik espero zuela PSk Blokea eta PCPrekin bat egin zezakeenik, baina gertatu da*

lehendakari parlamentuko gehiengoaren aurka. Hau da, eskuindarrek ezingo dutela ezer aurrera atera Legebiltzarrean eta jarduneko gobernua izango dela datorren urtarrilera arte, Errepublikako lehendakaria hautatzeko hauteskundeak egin arte. PSko edo ezkerreko kontsentsuko lehendakari bat ateratzen bada, PSko gobernu lehendakari bat hautatuko da eta Portugalak austeritatearen aurka borrokari ekingo dio, Blokea

eta komunistak ezkerreko tiraka eta PS sozialdemokrazia klasikoari eutsi nahian. Lehendakari eskuindarra gailentzen bada, kohabitazio egoera korapilatsua sortuko da, honek nekez izendatu ahalko baitu berriz gobernu lehendakari eskuindarra. Baina filmaren zati hori nekez aurreikus daiteke orain.

**IKASGAIK?** Batzuk bederen izan daitezke: bat, PCPk ikusi du hobe dela saiatzea ezkerreko indarren artean Troikari aurre egitea, eskuinak Troikarena nahieran inposatzen jarraitzea baino. Bi, PSk ere nahiago izan du Portugalako Syrizarekin bat egitea, epe ertainera PASOK izan baino. Hiru, Grezian gertatutakoa ikusita ezkerreko aliantzak nekez jokatu du Syrizak bezala, Bruselari hain zuzenki aurre eginez. Eta lau: horrela jokatuta, borrokatu nahi duen austeritateari aurre egiteko tarterik bada?

Inork ez daki, baina Greziakoaren ondoren, badirudi EBko ezkerreko indarrek, gobernuetara iritsita ere, Bruselarekiko konfrontazio zuzena saihestuko dutela. Euren herrialdetako gudu handiak irabazi ondoren, aliantzen bidez Europar Batasuneko politikak aldatzea izan liteke geratzen den bideetakoa. Bidea bakarrik egitearen alternatiba gogorra da: hau da, herrialdea eurogunetik ateratzeko baldintzetara prestatzea, edozein herrialdetan beldurra eragiten duen alternatiba, baita ezkerreko populazioaren artean ere.

Egoera gaitzen aurrean, nola eutsi, beraz, amets egin gabe? “Herria da gehien agintzen duena /Edozein txokotan, lagun bat / Aurpegi bakoitzean, berdintasuna...”. ■



elikadura burujabetza

INDEPENDENTZIA

ingurumena

oroimen historikoa

PAREKIDETASUNA

giza eskubideen defentsa

EUSKALTZALETASUNA

demokrazia zuzena

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

herrien mundua

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

sexu askapena

# argia

ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIAren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

## HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleho izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

## AZAROKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babes eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu:



Bizi Baratzea liburua  
5 opari



Europako herrien mapa  
5 opari



Argia kamiseta  
5 opari

**ARGIA**n gure gaiak dira gure baloreak,  
**ARGIA**kideak gure oinarria

## PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545  
gunea@argia.eus  
www.argia.eus/gunea



# euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

**noiz:**

azaroak 5 osteguna

**non:**

San Telmo Museoa  
(Donostia)

**ordua:**

09:00-14:00

**\*oharra:**

plaza kopurua  
kontrolatu ahal izateko,  
beharrezkoa da izena  
ematea.

## EGITARAUA

**09:00** Aurkezpena: Gipuzkoako Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko ordezkariak izango dira bertan

**09:15** Hitzaldia: La realidad multipantalla nos rodea  
**Ferran Clavell** – CCMA-ko berrikuntza eta analitika digitaleko burua eta TV3

**09:50** Hitzaldia: Teknologia ikus-entzunezko komunikazio eta marketinaren mesedetan  
Pantaila anitzen euskal merkatua. Egoera eta aukerak

**Eli Pombo** (Iametzta Interaktiboa)

TBARGIA proiektua: betiko web guneetatik gailu anitzetara jauzia

**Julen Irazoki** (Iametzta Interaktiboa)

TBARGIA proiektua: Gailu anitzetarako aplikazioak sortzeak dakartzan erronka teknologikoak  
**Mikel Zorrilla** (Vicomtech-IK4)

Ukitzen ez dena ere bada: papera, pantaila eta bihar-etziko ARGIA

**Gorka Bereziartua** (ARGIA)

**10:45** Hitzaldia: El tratamiento lingüístico en el entorno multipantalla-second screen  
**Geni del Vilar** – TV3

**11:15** Atsedena

**12:00** Hitzaldia: Shazam, bringing magic to cross media engagement  
**Filippo Vizzotto** – Shazam

**12:35** Hitzaldia: The creative industries in Europe. The example of North Pas de Calais Region  
**Philippe Freville** – Pictanovo

**13:00** Mahai-ingurua: Sormen industria Euskal Herrian. Pantaila anitzen errealitatea posible ote da hemen?

> Moderatzailea: **Lore Martinez Axpe**, Informatika ingeneria eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazioaren Gizarteko zuzendari ohia

> Parte hartzaileak: **Joxean Muñoz**, Eusko Jaurlaritzako Kultura kontseilari ordea

**Fernando Perez**, Nafarroako Gobernuak Kultura zuzendari nagusia

**Xabier Garcia de Kortazar**, Vicomtech-IK4-ko Transferentzia Teknologikoa sailko kidea

**Joxe Rojas**, Tokikom-eko teknologia arduraduna

**Live Storytelling Garbiñe Ubeda** marrazkilari eta kazetariaren eskutik

Mundua bete pantaila:  
Komunikazio eta marketin eredu berriak  
gailu ugarietako errealitatean

Antolatzaileak

ametzagaña  
OOO taldea

iametzta  
interaktiboa

argia

info+:

[www.euskarabildua.eus](http://www.euskarabildua.eus)

Babesleak



Laguntzaileak

an<sup>oa</sup>  
KONKURTSU-ERAKIA

LA ASOCIACIÓN  
DE EMPRESAS PÚBLICAS DE  
ADIFEREN ELKARTER

Lurauto

LABORAL

eiken

eitb

Expres  
Digitale

eus

GAIA  
Gurea, berriak  
Gurea, berriak

hekimen

LABORAL

LABORAL

LANLINE

STM  
San Telmo Museoa

NEU  
UEN